HABE
euskara ikasten ari garenon aldizkaria
306. Zenb.
2000ko iraila
390 pta./ 17 libera/
2,34 euro (B.E.Z. barne)



Irailean berriz er'e martxan


Iritzia:
Eguzkizaleen gurutze – bidea

Elkarrizketa:
Lantokia gurasoek sortu, ondorengoek jarraitu...

Bidaia:
Aizkorriko San Adrian

Ariketak:
1.Maila

www.ivap.org


File Edit View Go
Netscape: IVAP: menua euskaraz
Back Forward Reload Home Search Guide Images Print Security Stop
Location: http://www.ivap.org/eusk/menu_eu2.htm
IVAP
Zer da HAEE?
Nortzuk gara?
Hauek dira HAEEk Interneten eskaintzen dituen zerbitzuak:
Bilatu gure webgunean
Ikastaroak
Lan-eskaintzak [Harpidetza]
Argitalpenak
Liburutegia
Linkak [Euskal Herria] [Europa]
Administrazioko hizkera eta euskalduntzea:
Hizkuntza-eskakizunak
[Azterketak] [Deialdia] [Emaitzak]
Administrazioa euskaraz aldizkaria
Zenbait argitalpen
Udal-espedienteak
Itzulpenak
[Harremak] [Harreraak] [Hemeak eta kaleak]
Ad.mini KLOPEDIA
Kontsulta-zerbitzua

ERREDAKZIOA:
Iñaki Ugalde
Ion Imanol Iturrioz
Koro Otegi
Eskarne Lopetegi
Esther Isasa
Josu Perales

DISEINU ETA MAKETAZIOA:
Zirrimarra (Andoain)

MARRAZKIAK:
Josetxo Sastre
Iñaki G. Erro (wentxi)
"zirrimarra"



IRARKOLA:
Sacal S.L.
VITORIA -GASTEIZ

LEGEZKO GORDAILUA
BI- 2251/81
ISSN: 0212-6788

306

Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorra
HABE
Tel. 943 02 26 00
Faxa: 943 02 26 01
e-mail: argitalpenak@habe.org
Harpidetzak: harpidetzak@habe.org



5 SAREAN

6 GAURGERO MOTZEAN

8 GAURGERO
- Nola iraun beltzaran?
- Migrazioak

12 BIDAIA

16 INTERESGUNEA
Irailean, berriz ere martxan

24 ELKARRIZKETA
Lantokia gurasoek sortu, ondorengoek jarraitu...

28 ZINEA
Sagutxoak gehi oiloak gehi kabutziak

32 KULTURONTZIA
Carmen Martin Gaite
Piaget: 20 urte hil zela

36 DENBORAPASAK

41 IKASLEAREN KOADERNOA
eta Ariketak: 1. Maila













HABE

Erakunde Autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HARPIDETZA-ORRIA

Helbide honetara bidali behar da:
HABE aldizkaria
Vitoria-Gasteiz kalea, 3
20018 DONOSTIA

Izen-deiturak:.....
Identifikazio Fiskalaren Kodea / Nortasun-agiria: .....
Kalea: ..... Zenbakia: ..... Telefonoa: .....
Herria: .....Posta-kodea: .....Probintzia:.....

HABE aldizkaria jaso nahi dut etxean.(Urtean 11 ale: 3.400 pezeta)

Honela ordainduko dut:
- ☐ Errenboltsoz
- ☐ HABEren izenean luzaturiko txeke bidez
- ☐ Transferentzi bidez (kutxa 2101.0381.01.0003069002)
- ☐ Kontu korronte bidez: Bankua edo Aurrezki Kutxa: .....

Sukurtsala: .....K.D.: .....
Zenbakia: .....


OHARRA: Egin daiteke harpidetza HABENET-en bidez ere: www.habe.org



Zure txokoa

Kaixo lagunok! Gutxi izan dira orain arte zuengandik jasotako idatziak. Dena dela, lasai gaude bai baitakigu hurrengo aleak argitaratzen direnean lanez gainezka ibiliko garela zuen eskutitzei erantzuten. Beraz, anima zaitezte idaztera!

Momentuz, eta gutxi badira ere, hona hemen lau lagunek bidalitakoak:



Kaixo lagunok!
Andregai euskalduna duen mutil euskaldunberria naiz eta nire arazoa kontatu nahi dizuet, zuen laguntza behar dut-eta.
Asko saiatzen naizen arren, ez dut oraindik lortu nire andregaiak nirekin euskaraz hitz egitea, batez ere goxo-goxo eta biok bakarrik gaudenean. Ez omen zaio ateratzen. Zer egin dezaket ohitura txar hau aldatzeko?

Asier, Gasteiz

Asier, egon lasai eta eman denbora zure azukre koxkorrari egoera onartzeko, ez baita erraza hainbat ohitura aldatzea. Modu bakarra, hauxe: gaztelaniaz hitz egiten dizunean ere, euskaraz erantzun. Ea horrela ohitzen den eta gero eta errazago ateratzen zaion zurekin euskaraz aritzea!



IRAKASLE, ADI!

Barrene-Barrenet-Barrenkale: langai berriak eta eskaintza berezia

* Ikasturte berriarekin batera langai berriak dituzu oraingoan eskura.
* Eta eskaintza berezia zure ikasleekin erabili nahi baduzu:
  * Ikasturte honen hasieran aukera duzu zeure euskaltegiko ikasleei matrikularekin batera ikas-materialak eskaini eta kobratzeko.
  * Gure aldetik, ikasleen esku jartzen diren materialak merkeago eskainiko ditugu. ikasle-talde-arentzat eskatutako ikas-materialek % 50eko beherapena izango dute. Banakako aleak, aldiz, dagokion prezioan emango dira.

Eskaerak HABEra zuzendu
Tel. 943 02 26 34 Fax: 943 02 26 01
E-posta. info@habe.org



Nire kezka handi bat azaltzeko idatzi dut: zein da euskara ikasteko dagoen modurik azkarrena? Urte asko daramatzat euskaltegira joaten, baina oraindik ere ez dut neure burua ziurregi ikusten. Zer egin dezaket? Mila esker erantzuteagatik.

Miren, Zarautz

Ene Miren maitea, ez zaitez hainbeste kezkatu eta eutsi gogor goiari. Ikas-prozesu luze guztietan bezalaxe, nekatuta zaudela antzematen dizugu. Atsedena hartu eta saia zaitez zeure burua ez estutzen. Ikusiko duzu hemendik aurrera zein erraz lortuko duzun aurreratzea. Sekretua: gauzak patxadaz hartzea.



Aldizkariko arduradunei, agur t´erdi:
Aspaldian utzi nion euskaltegira joateari, baina oso gustura hartuko nuke irakasle batek nire lanak zuzentzea. Idazlanen bat bidaliko banizue, zuzenduko al zenidakete? Mila esker.

Iker, Barakaldo

Iker, lagun hori, bidali lasai zeure lanak, zuzendu eta bueltan joango zaizkizu berriro etxera. Dena dela, jakin nahiko genuke asko idazten duzun ala ez, ez baita guretzat lan bera izango orritxo bat tarteka ala egunero bost orri zuzentzea. Gai hau argituta, idatziguzu e-mail bat; gure helbidea: argitalpenak@habe.org .



Kaixo, lagunak,
ZORIONAK, HABEren aldizkaria berria oso oso ondo da, eta CD ere bai.
Agur eta ondo pasa!

2000ko uztailaren 26an
Un andaluz,
A. I.
11391 El Chaparral

Zure txokoa da hau, idatziguzu!

Sarean



Horra hor hizkuntzak ikasteko ariketak prestatzeko interneten doan banatzen den softwarearen izena. Hizkuntzak irakasten dutenentzat dago prestatua. Eta interneten bertan erabiltzekoa da, Windows 95/98/N//2000 eta Macintosh sistemetan. Aldioro ari dira egileak software hori berritzen. Une honetan 4.1 bertsioa jarri dute sarean eskuragai. Eta, agi denez, ziztu bizian ari da hedatzen internet zaleen artean. Badaude gainera erabiltzeko gidak gaztelaniaz eta frantsesez.

Canadan, Victoria unibertsitateko *Language Centre* delakoa da banatzailea eta mamiari dagokionez,. denetara sei aplikazio dira Interneten bidez hainbat ariketa-mota prestatzekoak: aukera anitzeko galderak, erantzun motzeko ariketak, esaldi nahasiak, hitz gurutzatuak, uztartzen/ordenatzen erakoak eta hutsuneak betetzekoak. Badute irakasle Internet zaleek zer miatu eta lardaxkatu:
http://web.uvic.ca/hrd/halfbaked/



EL RACÓ DEL CLIC

Irakaskuntzarako ariketak sortzeko aukera ematen duen softwarea da Clic. Irakasleen arteko kooperazio-gune izan nahi du eta programarekin sortutako materialak elkartrukatzeko aukera eskaintzen du. Ariketen sailean irakasle askok sortutako aplikazioak aurkituko dituzue, baita euskarazkoak ere.

Helbidea:
http://www.xtec.es/recursos/clic/esp/index.htm

Eskerrik asko pasaiako Udal Euskaltegiko Aitziber San Roman irakasleari helbide honen berri emateagatik.

Iker Estala

Gaur motz



Txipadun bularretakoa

Australiako zientzilari-talde batek mikrotxip batek kontrolatzen duen **bularretakoa** asmatu du. Wollongong Unibertsitateko ikertzaileen esanetan, bularretakoa janzten duen pertsonaren titietara egokitzen da txiparen bitartez, eta ez hori bakarrik, daramanak **unean-unean** zer egiten duen horren arabera zabaltzen, estutzen edo luzatzen da. Hau guztia **bizkarrezurreko** minak **ekiditeko**.

Horrelako arropara iristeko, zientzilariek, bularreko diafragman eta bularretakoen tiranteetan sensoreak jarri dituzte eta modelo askoren bularrak handiak, txikiak, borobilak, luxeak- eta hauen mugimenduak aztertu. Bularretako berriaren fabrikatzaileak martxan dira jadanik eta berehala izango ditugu salgai Wonder-bra eta gel-brarekin batera.

Erretzeari uzteko lehiaketa

Mexikoko Osasun Ministeritzak **erretzeari uzteko** antolatu ohi dituen kanpainez gain, teknika berriak erabiltzea erabaki du. Horietako bat "Utzi eta irabazi" izenekoa. Martxan jarri eta hiru hilabeteko epean erretzeari utzi ziotenen artetik 30 bakarrik iritsi ziren finalera. Horietatik, eta benetan erretzeari utzi ziotela baieztatzeko, 10ek gainditu zituzten analisi klinikoak eta, azkenik, Ruben Eduardo Yañez mexikarra izan zen irabazlea. Honek 100 mila peso **poltsikoratu** zituen. Lortutako arrakastari esker, Mexikoko Osasun Ministeritzak datorren urtean ere lehiaketa antolatuko duela ziurtatu du.





Animalien sexu-kontuak

Gizakion artean **sexu-tresnaren** tamaina beti izan da garrantzitsua, baina animalien artean? Ba beno... balearen **zakila** 2,40 metro neurtzera iritsi daiteke; handiegia? animalia honen tamaina osoa kontuan hartuz, ez. Lanpernarena txikia da, bere gorputzarekin konparatzen badugu, ordea, 40 aldiz handiagoa da, naturan dagoen handiena.

Eta zenbat aldiz egiten dute **sexu-lana?** Xagu basatiek, aldiko 100 aldiz hamar ordutan, lehoiek ia 50 aldiz egunean, baina denbora laburrez, 20 segundoz. Errinozeronte beltzak, berriz, ordu erdi ematen du **aldiko** eta, ustez, hori da animalia horren adarrak afrodisiakotzat hartzeko arrazoi bakarra.

Animalien paradisu honetan, sexu-kontuetan harritzen gaituena nautilus karakola izan da. Zakila uretan luzatuta edukitzen baitu eme bat aurkitu arte. Hori da hori pazientzia!

104 Katu etxean

Askotan irakurri izan ditugu zer nolako arazoak sortzen dituen maskotak etxean izateak. Gehienetan, noski, jabeei; baina beste hainbatetan inguruan bizi direnei. Pentsa beraz, nolako **gurutzebidea** zuten Kristine Kierig estatubatuarraren bizilagunek: 104 katurekin batera bizi baitzen! Bai, ongi irakurri duzue, 104. Hainbatetan salatu zuten bizilagunek egoera hori, baina osasun-zerbitzukoek ez zieten **jaramon** gehiegirik **egiten**. Azkenean, bizilagunek **epaitegiko** langile bat Kierigen etxera joatea lortu zuten, baina funtzionario hark ez zuen ezer arrarorik aurkitu. 104 katu zeudela, bai, guztiak garbi-garbiak eta primerako osasunean ordea. Katu-jabeak hala ere, **aitortu** du etxe barruan usain pixka bat baduela.



eangero



Biolentzia marrazki bizidunetan

Estatu Batuetako Marylandeko Unibertsitateko ikertzaileen arabera, marrazki bizidunetan helduentzako filmeetan baino biolentzia gehiago azaltzen da. Horrez gain, biolentziazko sekuentzien erdia **hilketaren** batekin amaitzen dela diote. Ikerketaren ondorioen artean, azpimarratu dute haurrek eta gazteek gero eta **biolentzia-egarri** handiagoa dutela eta hori Estatu Batuetako institutuetan nabarmentzen da. Gehienetan, eta agintariek bultzaturik gainera, **zinpeko goardak** eta metal-detektagailuak jarri dituzte. Charlton Heston buru duen Riflearen elkarteak zuzen-zuzen beraien aurka doan ikerketa hori ikusita, armen defentsa **sutsua** egin du, esanez ez direla armak debekatu behar, erabiltzaileak **hezi** baizik.

Datu-pilaketa

Hamaika ikusteko jaioak gara. Hori pentsatuko lukete gure aiton-amonek egungo informatika ikusita. Gu ere **aho bete hortz** uzten gaituzte asmakizun askok: Rosseta proiektuak, adibidez. Norsam enpresak aurrera daraman proiektu honi esker, disketeak, CD-Rom-ak eta bestelakoek etorkizun beltza dute. **Ioi izpi** bati esker edozein motatako informazioa gorde daiteke bi pulgadatako disko txikietan. Gainera, disko hauen kalitatea ez dute aldatzen ez **hozberoak** ez **hezetasunak**. Bertan 1000tik 100 mila iruditara gorde daitezke eta informazioa irakurtzeko mikroskopio bat besterik ez da behar.





Diskoteken ordezkari

Partidu politiko berri bat sortzea erabaki du Stefano Mantinenghi jaunak, Italiako betiko alderdi politikoen kanpainak eta programak 50 urte gorakoentzat direla eta gaua eta diskotekak gozatzen dutenak ahaztuta dituela sinestuta,. "Gaua eta Bizitza" izeneko alderdiak, batez ere, gaueko ordutegiaren kontra lan egingo duen alderdia izango da, baina era berean gaua gozatzen dutenen erreibindikazio bide berri bat izan nahi du. Hemendik aurrera, beraz, botazioak **ordu txikitan** jarri beharko dira eta botua, nola ez, eskoletan eta institutuetan eman beharrean, diskoteketan eman beharko da.

Boa bat etxelagun

Bere biziko ezustekoa hartu zuen Linda Fennimorek, New Yorkeko bere etxean metro t´erdiko boa aurkitu zuenean. Jazz biolontxelista honek urte t´erdi darama apartamentu honetan eta ordura arte ez zuen animaliatxoarekin topo egin; joan den egunean, egongelan disko baten bila ari zela ikusi zuen arte. New Yorkeko zooko teknikariek **bertaratu** eta **kaiolaratzen** saiatu dira, baina guztiz alferrik, ez baitzuten apartamentu osoan **narrasti** honen arrastorik ere aurkitu. **Atzematen** ez dutenez, etxez aldatzea erabaki du Linda Fennimorek.

Aho bete hortz: *boquiabierto*
Aitortu: *onartu*
Aldiko: *aldi bakoitzeko*
Atzeman: *harrapatu*
Bertaratu: *bertara joan. Llegar al lugar*
Biolentzia-egarri: *sed, ganas de violencia*
Bizkarrezur: *columna vertebral*
Bularretako: *sujetador, sostén*
Epaitegi: *juzgado*
Ekidin: *evitar*
Erretzeari utzi: *dejar de fumar*
Gurutzebide: *calvario*
Hamaika: *asko*
Hezetasun: *humedad*
Hezi: *educar*
Hilketa: *asesinato*
Hozbero: *temperatura*
Ioi-izpi: *rayo iónico*
Jaramon egin: *kasurik egin*
Kaiolaratu: *kaiolan sartu. Enjaular*
Narrasti: *reptil*
Poltsikoratu: *irabazi*
Sexu lan: *coito, cópula*
Sexu tresna: *zakila. Pene*
Sutsu: *ferviente*
Ordu txikitan: *de madrugada*
Unean unean: *en cada momento*
Zinpeko guarda: *guarda jurado*

Hamaika ikusteko jaioak gara
Ezusteko baten aurrean harridura adierazteko erabiltzen dugun esaldia dugu hau, gaztelaniara zuzenean itzulita inolako zentzurik ez duena, **Hemos nacido para ver once** esaldiak ez baitu ezer esan nahi gaztelaniaz. Horretarako **¡Es increìble!** edo **¡no es posible!** bezalakoak erabiliko genituzke

Itziar GOYA: “Azala ondo hidratatzen bada, beztuak gehiago irauten du”

Irailean, oporren **hondarrean** eta aurreraxeago, **beltzaran** segitu nahi izaten du jende askok. Udan hondartzan, mendian eguzkitan jarri, xerrak zartaginean bezala, beztu alde batetik eta bestetik, edo gorritu, eta ostean, kolore horri **eutsi** nahi, **kosta ala kosta**. Baina irailean eguzkiak ez du horrenbeste **jotzen**, egunak motzagoak dira. Berdin dio, eguzkiaren beharrik gabe bezteko kremarekin **igurtzi** larruazala, eta listo. Lortu dugu udako **emaitzek** irautea. Beltzaran egon behar da, ala morena! Hori da **jomuga**. Eta beltzaran jarraitzeko sufritu behar bada, bada sufritu egin behar. Gu, badaezpada ere, dermatologo batekin hitz egin dugu, Itziar Goyarekin, irailean beltz edo beltz-antxean egoteko zer egin behar den, eta zer ez, jakiteko.



HABE.- Zer egin behar da irailean beltzaran segitzeko?
ITZIAR GOYA.- Beharbada lehenagotik hasi behar da. Eguzkiaren kontrako babesa duen ukendua eman behar da, eta poliki-poliki hasi, eta gehiago irauten du koloreak. Egin behar ez dena da ero moduan eguzkitan jarri, azala errez eta mantxak sortuz.

H.- Irakurri dugu hiru ordu-laurden egonda nahikoa dela, ez zarela beltzaranago jarriko denbora gehiago egoteagatik.
I.G.- Baina zein joaten da hondartzara hiru ordu-laurden pasatzera? Inor ez. Egin behar dena da ondo babestu, batez ere eguerdiko hamabietatik laurak bitarte horretan. Eta krema hidratatzailea eman, ze eguzkiak egiten du **azala** lehortu. Kanpotik ukendua, eta barrutik ura. Ura edatea da azala hidratatzeko erarik **egokiena**. Azala ondo hidratatua bada, **beztuak** gehiago irauten du. Eta krema hidratatzaile onak eman, ahal den sinpleenak, **esnearen antzekoak**, koipe gutxikoak...

Hondartzan bi orduz behin igurtzi

H.- Beltzaran daudenek ere bi orduz behin **igurtzi** behar al dute larrua?
I.G.- Hori da; eta bainatzen bazara, maizago gainera. Ondo lehortu, eta berriro **igurtzi**. Hobe da etxean emanda joatea hondartzara, ze izerdiarekin eta, urarekin eta, indarra galtzen du. Bestalde, hondartzan bakarrik ez, kalean paseatzeko ere ukendua eman behar da, eta mendian zer esanik ez... Eta lainoek, besterik gabe, ez dute azala babesten.

H.- Orain dela gutxi egunkarietan azaldu da berri bat esanez ukendu babesdunak hartzen dituela jendeak, baina babes gutxikoak, gutxienez 35 zenbakiduna erabili beharko lukeela **gehiengo batek.** 35 ez al da gehiegitxo?
I.G.- Ba, bai. Egia da txuri-txuriek zenbaki handiago baten premia dutela, baina 20 bat nahikoa da, eta horri eutsi edo. Udaren bukaeran, asko jota, **zortzira jaistea daukazu**, 20rekin hasi bazara... 20tik gora babes-maila oso gutxi igotzen da, egia esan. Bestalde, azalgune batzuek babes gehiago behar dute: eskoteak, aurpegiak... Bizkarrak, hankek gutxiago behar dute, baina denek behar dute zerbait.

H.- Urtero-urtero azala zaintzen duenak, eguzkira ohituz alegia, urteen poderioz errazago eutsiko dio hartutako kolorеari!
I.G.- Baina hor ere azal bakoitzak bere neurria du, txuri-txuriak ez dira behin ere moreno jarriko, kolore piska bat hartu arren. Inportanteena poliki-poliki joatea da, azala behartu gabe.

H.- Eta azala bezteko eguzkiaren beharrik ez duten ukenduak?
I.G.- Onak dira. Batzuek eguzkitik babesten zaituzte, eta beste batzuek ez. Hobe da azken hauek erabiltzea, eta horien gainean ohiko krema babesdunak erabiltzea. Ze babesa duten *autobrontzeadoreek* osagai kimiko asko dituzte, eta ez da hain ona hori azalerako. Eta gero kontuan hartu behar da, beltzaran egoteko garai jakin bat dagoela, eta hortik aurrera ez dela polita. Autobrontzeadoreak ez dira urte guztirako. Azala zaintzea urte guztian bai, baina bere atsedena ere behar du larruak. Txuri egoten ere jakin behar da.





Beltzaran: *moreno/a*
Beztu: *el moreno. Aditza izen balioarekin*
Egoki: *conveniente*
Emaitza: *ondorio. Resultado*
Esnearen antzeko: *esnearen gisakoak. Los que se parecen a la leche*
Eutsi: *zeri eutsi, kolore horri. Eutsi aditzak nori eskatzen du. Mantener*
Gehiengo batek: *gehientsuenek. La mayoria*
Hondar: *Bukaera*
Jo: *calentar*
Jomuga: *helburua. Finalidad*
Kosta ala kosta: *cueste lo que cueste*
Lehortu: *sikatu*
Urteen poderioz: *urteen joanean. Al cabo de los años*
Zortzira jaistea daukazu: *zortzira jaitsi zaitezke*

gero IRITZIA



Eguzkizaleen gurutzebidea

Ritxi Lizartza

IGURTZI

Igurtzi aditza gaztelerara itzuli beharko bagenu, arazo handia genuke, adiera asko baititu. Ikusi, bestela, adibideok:

Mahaia oihal batez igurtzi
Begiak igurtzi
Behatzaz sudurra igurtzi
Eskuak igurtzi
Mihiaz aurpegia igurtzi
Malkoak igurtzi
Alkoholez igurtzi
Olioz igurtzi

Adibideak irakurrita, zerrendari erreparatu eta aukera itzazu gaztelaniazko adiera posibleak, kontuan izan tartean ez diren batzuk ere txertatu ditugula *(zuzenketa-orria **39**.or.)*:

- Frotar ☐
- Rascar ☐
- Dar ☐
- Acariciar ☐
- Tocar ☐
- Restregar ☐
- Sobar ☐
- Friccionar ☐
- Untar ☐
- Ungir ☐
- Dar friegas ☐
- Rascarse ☐
- Lamer ☐
- Enjugar ☐

Bat, kolorea errazago hartzeko, hamar saio labean; bi, lehendabiziko eguzki-izpia ateratzen denean etxeko terrazan luze-zabal etzan eta **hotzak akabatzea**; hiru, apirileko urak agortu baino lehen hondartzara abiatzea; lau, Aste Santuko oporretarako sosak fix-fix berrian urtu beharra (azenarioa ez omen zen horren ona); bost, lanetik atera eta, bazkaldu beharrean, **estropezuka** hondartzara joatea; sei, oporretan eguzkitara joan nahi eta bikotekideari obsesionatuta gaudela entzun beharra; zazpi, hondartzan inguruko jendearen solas txoroak jasatea; zortzi, **begiluzeez** babesteko hondarrez albardatu eta barrikada jartzeko beharra; bederatzi, larruazaleko minbizia **pairatzeko** arriskua; hamar, bikote-kidea gurekin nazkatu eta oporretatik nor bere aldetik bueltatzeko **mehatxua**; hamaika, auzokoa herriko hondartzatik mugitu ez eta askoz ere beltzago dagoela jasan beharra (eta gure bikote-kide leialak egun osoa hari begira ematen du, gainera).

Eta hamabi, kalbario luze hau jasan eta karramarro kolore zikin hau ezin gainetik kendu!!!

Zer arraio egin behar ote da beltzaran egoteko? Merezi ote du hainbeste **katramila** eta **estualdi**? Azken batean, erre, **izerditu**, **estutu**, nazkatu, ingurukoak haserretu eta **bazterrak harrotu** besterik ez dut egin eta...! Eta, hori dena, karramarro baten itxura tristea izateko.



Wentxi

Badakit!! Aurten irailean hasiko naiz labean sartzen... Horrela, Aste Santurako inguruko guztiak niri begira izango ditut... eta ederrena izango naiz

Bazterrak harrotu: *zokoak edo gauzak nahastu*
Begiluze: *kuxkuxeroa*
Estropezuka: *estropezu eginez. A tropezones*
Estualdi: *larrialdia, estuasuna. Emergencia*
Estutu: *kezkatu, arduratu*
Hotzak akabatu: *hotzak egon*
Izerditu: *izerdia isuri. Sudar*
Karramarro: *cangrejo*
Katramila: *istilua, nahastea*
Mehatxu: *amenaza*
Pairatu: *jasan*
Urtu: *gastatu*

Eguzkizaleen gurutzebide berezi honek hamabi geldialdi ditu; beraz, beste bi beharko lituzke erabat osatzeko. Saia zaitez hamahiru eta hamalaugarrenak idazten:

Hamahiru, _____
_____
_____
Hamalau, _____
_____
_____


Idatzitako hamabi geldialdiak, berriz, oso modu telegrafikoan idatzi ditu gure kolaboratzaileak. Aukera itzazu bizpahiru eta saia zaitez adibidea irakurri ondoren berridazten.

Adibidea:
Bat, kolorea errazago hartzeko, hamar saio labean. (jatorrizkoan)
Gure proposamena:
Bat, gure azalak kolorea errazago hartzeko, etxetik hurbilen dugun kosmeti-ka-zentroan beltzaran jartzeko 5 minutuko hamar saio erosiko ditut.

Bi_____
_____
Hiru_____
_____
_____
_____

Aitor Bengoa


MIGRAZIOAK: hegaztien joan-etorriak



Udazkena iristearekin batera, makina bat jende jartzen da, lepoa luzatuta, zerura begira. Hegaztiak dituzte ikusmugan, batzuetan urrun, besteetan hurren. Izan ere, urtesasoi honetan, naturak eskaintzen digun ikuskizun paregabe honen **lekuko** izan nahi badugu, nahikoa dugu, prismatiko batzuk lagun mendi-tontor batetik begiratzea.

Migrazioaren gorabeherak argitzea zientzilari eta naturzale askoren buruhauste izan da mendeetan eta azalpen okerrak denbora luzez ontzat hartu izan dira. Esate baterako, Aristotele filosoaren ustez, enarak, neguan lumak galdu eta zulotan sartzen ziren, udaberrian, berriz, lumak berritzearekin batera, zuloetatik irten egiten ziren. Edo, kukuak gabirai bihurtzen zirela uste zuen, izan ere, neguan hemen kukurik ez da izaten eta gabiraiak ugaritu egiten dira. Era honetako pentsakerak indarrean egon ziren mende askotan. Gaur egun badakigu hori guztia ez dela horrela, edonola ere, oraindik migrazioari buruzko haibat xehetasun ezezagunak dira zientziarentzat.

Animaliak oro har, eta hegaztiak bereziki, bizi guztian mugitzen ari dira; bazka edo bikotekidea aurkitzeko, izkutatzeko... Mugimendu horien guztien barruan, migrazioa zer den eta zer ez den definitzea, ia ezinezkoa dela esan daiteke. Edonola ere, gehienetan, migraziotzat honako ezaugarriak dituzten mugimenduak hartzen dira; distantzia eta denbora luzeko bidaiak dira, urtero gertatzen dira garai bertsutan, joan-etorriko bidaiak dira eta taldearen zatirik handienak parte hartzen du.



Baina zergatik mugitzen dira hegaztiak? Oro har, elikagai eskasiak ..... ditu alde batetik bestera. Gure lurretan, urte-garaiak baldintzatuko du elikagai-kopurua, gauza jakina baita, udazkenean tenperaturak hoztearekin batera, intsektu, hazi eta landareak murriztu egiten direla. Espezie asko, ordea, ez dira elikagaiak erabat agortu zain egoten bidaiari ekiteko, eta fotoperiodoak (egunaren eta gauaren luzerak) agintzen die maletak noiz prestatu.

MIGRAZIOAK: hegaztien joan-etorriak



Hegaztien munduan, maletak prestatzea, denboraldi batean etengabe jan eta pisua pilatzea da. Izan ere, bidaiatu aurretik, gantz asko pilatzen dute, beren pisua emendatuz: espeziearen arabera %20-%60 artean egon daiteke. Gantz hauek izango dira, hain justu, bidaiarako energi-iturri nagusi.

Bada, ordea, migrazio-kontu hauetan, maiz egiten den galdera. Nola arraio orientatzen dira hegaztiak beren hegaldi luzeetan? Hipotesi eta uste asko egon da zientzilarien artean gai honen inguruan. Gaur egun dena argitu ez bada ere, badirudi, batez ere, eguzkia, izarrak eta lurraren eremu magnetikoa direla orientatzeko erreferentzia nagusiak. Gainera, uste da espezie gehienak aipaturiko erreferentzia horietako bat baino gehiago aldi berean erabiltzeko gai direla.

Biziraupen luzeko espezietan, migrazio hauetako ibilbidea irakatsi egiten da. Esate baterako, kurriloak 20-25 urtez bizitzen dira, eta migrazio-kontuetan eskarmentua duten helduek, gazteei irakatsi egiten diete nondik nora joan behar izaten den. Hau, ordea, ez da beti horrela izaten, eta adibiderik garbiena kukuarena dugu; kuku helduek, gazteek baino lehenago alde egiten dute, kuku-txitoa, parasitatu duen hegaztiaren habian koxkor-tzen ari den bitartean, gurasoek Afrikarako bidea hartzen dute. Beraz, bidea ez dute inon ikasi, eta badirudi berezko edo jaiotzetikako senak .... migratzen dutela.

Kontu hauei guztiei buruz gehiago jakin nahi duenak prismatikoak presta ditzala...

Bi hutsune horietan idazleak **bultzatu** aditza erabili du. Saia zaitez testuinguruaren arabera ordezkoren bat ipintzen:
Ekarri
Eragin
Behartu
Mugiarazi
.....

Enara: *golondrina*
Gabirai: *gavilán*
Gantz: *koipea. Grasa*
Koxkortu: *hazi. Crecer*
Kurrilo: *grulla*
Lekuko: *testigo*

Santiago Yaniz *(Erredakzioan euskaratua)*

Aizkorriko San Adrian, erro

Bide zaharrak, musika eta dantzak bezalaxe, herri baten **aztarnak** dira, haren historia osatzen dute. Bide zahar asko daude oraindik Gipuzkoan, baina San Adriangoa izango da, zalantzarik gabe, garrantzitsuenetakoa. Erromes eta lapur asko ibiltzen ziren bide horretan barrena, errege zenbait ere bai, Arabako **lautadan** sartu eta Gaztelara joateko.



San Adriango galtzada



Urbian abereak larrean



San Adriango tunela eta ermita

Oria ibaian gora eginez, mendiarekin egingo dugu topo. Otzaurten eta Etxegaraten bukatzen dira ibaiondoko lur **berdinak.** Zegama da Gipuzkoako azken herria batik bat Zegamatik pasatzen zen jendea Arabatik Gipuzkoara etortzeko, edo hemendik hara joateko.

Zegaman San Martinen eliza gotikoa bisitatuko dugu lehenik. Hor dago Zumalakarregi **ospetsuaren** mausoleoa. Eta, ondoren, herriko plazatik gertu, errekatxo bat pasata, Zumalakarregiren Mazkiaran barrena jauregia ikusiko dugu (kanpotik behintzat, jeneralean itxita egoten baita).

Santiagora erromes zihoazen asko Zegaman geratzen omen ziren gaua pasatzera. Horregatik, hirurehun bat **ostatu** ba omen ziren garai haietan. Andre Mari Zuriaren ermita ere babesleku izan zen, erromesentzako ospitale.

Zegamatik irten eta **mendatean** gora Otzaurtera joango gara. Benta zaharra, merkatarien tratu-lekua, ostatua da gaur egun, ondo jateko toki egokia. Han dago bide-bazterrean, Andre Mariaren ermita, **hilarriz** inguratua. Ondoko bidetik abiatuko gara berriro mendira igotzeko. Oso erosoa da San Adriana joateko bide hori.

Pago eder artean joango gara aurrera. Bidean txoko politak ikusiko ditugu alde batera eta bestera,

Argazkiak: Santiago Yaniz

mes eta lapurren pasabidea



Aizkorriko Gurutze Santuaren ermita



San Adriango aterpea



Garagartzako artegia eta Naparraitz haitzarra

Garagartzako **artegia** besteak beste, Naparraitz harkaitzarraren azpian **jentilarri** zorrotz dirudiena. Eta, **muino** batean, Zabalaitz-eko trikuharria ageriko zaigu. Txorrokopuntako **hegalean** segitu eta Beundako muinora iritsiko gara. Aizkorri-tontorreko haitzen azpitik hiru bat kilometro egin, eta San Adriandik datorren errekatxora helduko gara. Hamar minutu besterik ez da falta San Adriango **aterpera** iristeko. Mikeleteen koartela izan zen garai batean. Mikeleteak gogor aritu ziren frantsesen aurka Konbentzioko Gerra famatuan. Gero **gaizkileak** eta lapurrak harrapatzen ahalegindu ziren. Horrek berak adierazten digu zein garrantzizkoa izan zen San Adriango pasabidea. Urteak pasata gero, ostatu bihurtu zuten koartela, babesleku atsegina eta babarrunak jateko leku paregabea.

Tunel, kobazulo edo babesleku

San Adriango ostatuaren ondoan dago tuneleko sarrera. Barruan, Sancti Spiritusen ermita dago, garai batean **lekaide** templarioen ospitale izana, XI. mendean erromesentzako eliza bihurtua. Aurretik ere, jende asko ibilia zen **galtzada** horretan, batez ere artzain eta abeltzainak, menditik herrira eta herritik mendira.

Honela idatzi zuen XVIII. mendean Manier bidaiari ezagunak: "San Adrianera iritsita, **harritzar** ikaragarri bat dago, osokoa, eta erdian, alderik aldeko zulo handia. Zulo horretan elizatxo bat dago eta taberna". Beste sona handiko asko etorriak ziren aurretik ere: Navagiero Veneziako enbaxadorea, Alejandriako Patriarka, eta abar. Carlos V.a bera ere hemen izan omen zen. Behin behintzat makurtu beharra izan omen zuen bere burua, hemendik pasako bazen. Ermitatik aurrera, galtzada zabaldu egiten da, **alboetako** harkaitzarren babesean.

Aizkorri Gipuzkoako gailurra

Muino batera igo eta aurrez aurre bideska bat aurkituko dugu, pinturaz aski ongi seinalizatua. Zuhaitz artean lehenik, haitz artean ondoren, Mandobide izeneko **bidezidorrean** gora, ia laurehun metroko igoe-

Aizkorriko San Adrian, erro

ra dugu goraino. Beste piska bat ibili eta Gurutze Santuaren ermitara iritsiko gara, Aizkorriko gailurrera. Goitik primeran ageri zaigu Zegamatik San Adrianera egin dugun bidea. Hori gozamena!

Handik Arabara joan behar baitugu, Galarreta eta Araiako bideari helduko diogu, Lezearango erreka pasa eta Urkamendiko muinoa zapalduko dugu. Hor dago Arabaren eta Gipuzkoaren arteko muga. Galtzada zaharraren arrastoak erdi-galduta baitaude, basoko bide batetik Urkillara iritsiko gara. Handik Zalduondorako kaminoa asfaltatuta dago.

Erdi Aroan bide batean baino gehiagotan ibiltzen ziren San Adriandik Arabara joateko, bata, Galarretatik Aguraina zihoana, eta, bestea, Murutegiko **gazteluaren** ondotik Araiara zeramana. Aipatzeko beste zerbait: paraje horretan bi bide nagusi biltzen ziren Araban sartzeko: bata, Nafarroatik Arakilgo **haranetik** zetorrena, eta, bestea, Gipuzkoatik San Adriandik hona egin duguna.

Dena dela, Erdi Aroa baino askoz ere lehenago, **antzina-antzinatik** bizi izan da jendea paraje horretan. Gure **asaba** zaharrak hor jarri ziren bizitzen Murutegiko gaztelua **eraiki** baino mende asko lehenago. Hala adierazten dute Neolitiko garaiko aztarnak, aizkora landuak eta keramika-puskak dira horren lekuko. Erromesei eta merkatariei zeramatzaten ondasunak harrapatzeko lapurrak azaldu ziren garaian eraiki zuten Murutegiko gaztelua, lautadaren beste aldean dagoen Gebarako **gotorleku** ederraren pare-pare-an. Izen bat baino gehiago omen ditu gaztelu horrek: Morutegi, Mirutegi, Morotegi...**Mairuekin** zer ikusirik ote du? Historialariek ez digute gaztelu horri buruz askorik argitzen: Dakigun gauza bakarra da horko aztarna arkeologikoak San Adriango kobazulokoen garaitsukoak direla. Dena dela, hor daude zutik oraindik bata eta bestea. Bitartean, gozatu bat eman diezaiogun geure begiei.



Zegamako baserri bat Aizkorri azpian

Albo: *aldamena. Lado*
Antzina-antzinatik: *desde muy antiguo*
Artegi: *redil*
Asaba: *arbasoa. Antepasado*
Aterpe: *refugio*
Aztarna: *zantzua, arrastoa. Vestigio*
Berdin: *laua. Llano*
Bidezidor: *bideska. Senda*
Eraiki: *jaso. Construir*
Erromes: *peregrino/a*
Gaizkile: gaiztagina *delincuente, malhechor*
Galtzada: *bidarria. Calzada*
Gaztelu: *castillo*
Gotorleku: *fortaleza*
Haran: *ibarra. Valle*
Haritzar: *harri+tzar. Oso harri handia*
Hegal: *falda, ladera*
Hilarri: *piedra funeraria*
Jentilarri: *trikuharria. Dolmen*
Lautada: *ordeka. Llanura*
Lekaide: *monje*
Mairu: *moro*
Mendate: *puerto de montaña*
Muino: *colina*
Ospetsu: *Ospe+tsu. Sona handikoa. Célebre*
Ostatu: *mesón, posada*

aia
mes eta lapurren pasabidea

Erreportajean aipatzen diren hainbat toki aurkituko dituzu mapan, baita beste gune batzuk ere. Irakurri ahalean, saia zaitez ikur hauei leku egokia bilatzen.



babarrunak



Zumalakarregi



lapurrak




gaztelua



pagoak




trikuharria



Zuzenketa-orria **39**. *or.*

Idoia Arozena

Irailean, berriz ere martxan



Urte berriaren hasiera ofiziala Gabonetan ospatzen den arren, benetako urte-aldaketa opor ostean estreinatu ohi dugu, irailean alegia. Aurten, 300.000tik gora haur eta gaztek ikastaro berria estreinatuko dute eta helduok, datorren urteko oporrak bitarteko, lan-aro luzea **urratzen** hasiko gara. Irailak, gainera, gastu handia ekartzen du, batez ere haur edo gazteak etxean dituztenentzat -50.000 pezeta batez beste- eta aldapan gora joatea ez da beti erraza suertatzen. Dena den, aldaketa ugari ekar ditzakeen hilabetea ere bada eta aurten izango du nobedaderik ikasketa, unibertsitate eta lan-munduan ari direnentzat.

1. Iraila, urteroko burukomina

Urteko opor luzeenen buelta ez da **samurra** izaten. Hilabetea norbere kasa, patxadan eta lasai eman ondoren, berriro ere **iratzargailua** ipini eta araudiz eta betebeharrez **josita**ko beharrera itzuli behar izatea gogorra egiten da eta hori ez da gustukua inorentzat. Horri, haurren eskolarako bueltak ekartzen duen gastua gehitzen badiogu, iraila benetan astuna eta luzea bihur daiteke.

Haur bakoitzaren kurtso berriaren gastua 50.000 pezetakoa da, batez beste, testu-liburuak, gainerako materiala, garraioa, jangela eta guraso elkarteei ordaindu beharreko gastuak **batzen** baditugu.

Eta diru kontu hauek hezkuntza publikoari dagozkionak dira. Pribatura jotzen badugu, gastuak izugarri handitzen dira, uniforme eta bestelakoek asko garestitzen dutelako ikasturtearen hasiera. Honela, hezkuntza pribatuan matrikulatuta dagoen haur bakoitzaren batez besteko gastua 80.000 eta 160.000 pezeta bitartean dago.

Ipar Euskal Herrian gastua 20.000 eta 40.000 pezeta bitartean dago, baina estatuaren laguntzak Hego Euskal Herrian baino handiagoak dira eta testu-liburuak ere eskolarenak berarenak izaten direnez, nahiz eta gurasoek 20.000 pezeta inguru ordaintzen dituzten ikasturtearen hasieran, amaieran berriro bueltatzen zaizkie.

Diru kontu hauek urtez urte biderkatu egiten diren arren, haurren kopurua gero eta baxuagoa da. Honela, hurrengo bost urteetan hezkuntza ez-unibertsitarioko matrikulazioak %14 egingo du behera. Egun 350.000 haur dago matrikulaturik Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako zentru ez-unibertsitarioetan, baina hemendik 2004-5 urteetara 45.000 haur gutxiago egongo dira Elkarte Autonomoan. Eusko Jaurlaritzak dituen datuen arabera, ondoren kopuru hori mantendu egingo da eta horrekin dihardute lanean egun instituzioek, hezkuntzaren kalitatea hobetu asmoz.



2. Informatikoak, soldadoreak eta eskulan ez-kualifikatua behar da

Unibertsitatean eta lan-munduan ere aldaketa ugari ematen ari dira azken aldi honetan. Lizentziatura unibertsitarioa eskuratzea adinakorik ez zegoen orain urte batzuek. Unibertsitatean sartzeko boletoa eskuratu, urte batzuk bertan eman eta abokatu, mediku edota historialaria izaten ateratzen zenak, bazirudien etorkizuna ziurtatuta zuela. Eta a zer nolako etorkizuna gainera!

Denborak argi utzi du, ordea, gauzak ez direla horrela. Azkenengo datuen arabera, Euskal Herrian lizentziaturak gainezka daude eta, aldiz, bestelako eskulana behar da, informatikoak, soldadoreak edota eskulan ez-kualifikatua, hain zuzen ere.

Teknologien munduak **egunez egun** bizi duen aldaketa eta abiadura, **gainontzeko** alor guztietara iristen ari da. Orain urte batzuetako krisialdi ekonomikoa atzean gelditzen ari dela dirudien arren, orain berrikuntza horiei guztiei aurre egingo dion jendea behar da.

Instituzioak, enpresa-elkarteak zein hezkuntza-sistema bera ere horren jakitun dira eta orain urte batzuetatik hona, hezkuntza profesionalera zuzentzen ari dira ahaleginak, hezkuntza ez-unibertsitarioa bultzatuz, landuz, eta kalitatea eskainiz. Honela, lan-merkatuan egun honako **esparru** hauetan dago beharra: metalurgia eta makinaria-arloan, telekomunikazio eta elektronikan, **eraikuntzan** eta enpresei eskaini behar zaizkien zerbitzuetan.

Hala ere, unibertsitateko eta hezkuntza profesionaleko datuak konparatzen baldin badira, oraindik ere unibertsitatera jotzen du gehiengoak: amaitu berri den ikastaroan adibidez, ia 90.000 pertsona karreraren bat ikasten ari ziren; hezkuntza profesionalean zihardunenak, aldiz, apenas 33.000 iristen ziren.

Lanerako aukerak, ordea, bestelakoak dira eta letra arloko ikasketa unibertsitarioen lan-aukerak oso-oso baxuak dira. Gaur egun, psikologia, historia, biologia, **zuzenbidea**, zientzia politikoak edota pedagogia karrera egiteak ez du etorkizun handirik. Aldiz, apenas jenderik duten espezializazio profesionalek: elektronika, egurra, metala, automozioa, eraikuntza eta obrak eta abarrek, sekulako eskakizuna dute.

Beraz, **desoreka** horri aurre egitea derrigorrezkoa bihurtzen ari da.





3. Informatika ikasketak euskaraz

Batzuei harrigarria egingo zaien arren, oraindik ere, euskaraz hasi eta euskaraz amaitu daitekeen karrera gutxi da Euskal Herriko unibertsitateetan. Informatika da horietako bat eta hori oso berri ona da, teknologia berrien munduak profesionalen premia gero eta handiagoa bizi duelako eta informatika etorkizun handiko ikasketa delako.

Duela hamabost urte irakasle-talde bat bere borondatez euskaraz irakasten hasi zen Donostiako Informatika Fakultatean. Ordu estrekin hasi ziren baina fakultateak gustura hartu zuen irakasleen **jarrera** eta 1986an atera ziren fakultatean euskaraz aritzeko lehen bost plaza ofizialak, eskolak emateko ordu- kopurua finkatuta bete ziren. Irakasleentzat abentura berria izan zen, dokumentazio guztia euskaratu egin behar zelako. Ikasleek, dena den, mesfindantzaz hartu zuten berria eta horren **lekuko**, 300 ikasletik 25 bakarrik matrikulatu ziren euskaraz. Hori bai, 25 horiek oso **oroitzapen** onak dituzte, talde txikia izanik -ez da gauza bera gelan 100-60 lagun egotea edo 20- eta hurrengo euskaldunei bidea zabaltzen ari zirenaren jakitun, ikasle-irakasleen arteko harremana sekulakoa izan zelako, ahaztezina.

Egun, Ingeniaritza Informatika euskaraz ikastea posible da, baina **hautazko gaietan** oraindik hutsuneak daude, izan ere, guztiak ez baitaude euskaraz.

Egun, ingeniaritza-arloan irakasgai gehien euskaraz eskaintzen duen karrera da Ingeniaritza Informatika, eta fakultateko irakasleen %45 euskalduna da. Beraz, 40 irakasle inguru daude eskolak euskaraz emateko, hauetako 31 doktore. Dagoeneko posible da goi-mailako ingeniaritzan kreditu guztiak euskaraz egitea, hots, 330etik gora.

Euskaraz ikasteko material handirik ez dago eskura oraindaino, dena den, baina hori ere aldatzen ari da, eta une honetan informatikaren oinarri matematikoak, konputagailuen arkitektura, programazioa, sareak, sistema eragileak eta abar euskaraz lantzen ahal dira testu-liburuetan. Horrekin batera, ikasgai guztietako apunteak, **gardenkiak**, laborategiak eta abar euskaraz izango dira. Oraindik softwareak ingelesez eta gaztelaniaz hitz egiten du, baina euskaraz badago gutxika zerbait gehiago. Windows 95 eta 98 sistema eragileak, Office aplikazio multzoa, testu-editorea eta datu-basea eta Xuxen fakultatean bertan sortutako ortografia zuzentzailea.



4. Euskal Herriko liburudendak, hil zorian

Ikasturte berria hil ala bizikoa izan daiteke Euskal Herriko liburudenda txikientzat, Gobernu espainiarrak onartu berri duen testu liburuen deskontu librearen dekretuak, izugarrizko kaltea egingo dienaren beldur direlako eta oso kezkaturik daude. Denda txiki guztiekin gertatzen den **legez**, hauek ere gauza bera diote: handiak txikia jan egingo duela eta dekretu hori **merkataritza-gune** handien mesederako bakarrik izango dela.

Liburudenda Elkarteek luzatzen dituzten datuen arabera, lehenengo urtean liburudenden %50ek itxi dezake. Zergatik? Liburudenda txiki eta **ertainen** diru-iturri garrantzitsuenetako bat eskola, instituto eta ikastoletan erabiltzen diren testu-liburuen salmentatik datorrelako.

Liburudendetako Elkarteek esandakori kasu egiten badiogu, hemendik gutxira hiri handietan dauden bizpahiru liburudenda handiak baino ez dira salbatuko. Auzoetako denda xeheek, berriz, ez dute zer eginik izango eta poliki-poliki desagertzen joango dira.

Testu liburuen deskontu librea eta liburuen prezioaren liberalizazioa ez da gauza bera, dena den. Prezioaren liberalizazioa aplikatuz, argitaletxeak prezio batekin salduko lioke dendariari eta honek, berak erabakiko luke prezioa, beti ere argitaletxeak ezarritako oinarrizko kostuaren gainetik. Dekretuak egiten duena, aldiz, deskontua liberalizatzea da, beraz, kostu azpitik saltzeko askatasun osoa ematen du eta hori, gune handiek bakarrik egin dezakete. Liburudendetako Elkarteek diotenez, testu-liburuak gune handiek erreklamu gisa erabili ahal izango dituzten elementuak **baino** ez dira, **bezeroak** lortu eta gainerako guztia -eta, benetan, badute zer eskainia- saldu ahal izateko.

Liburu-saltzaileek liburuekin ateratzen duten **etekina**, denda txikietan zein handietan, %25ekoa da. Liburudenda txikien beldurra hortik dator, areto handiek etekin horri uko egin baitiezaiokete, liburuak, azken finean, amu gisa erabiliko baitituzte. Txikiek, aldiz, ezin diote horri aurre egin eta dekretua denda txikien sekulako porrota izan daiteke.

Etorkizuna kezka handiz ikusten dutela esatea, beraz, ez da txantxetakoa.



5. Mondragon Unibertsitatea, txikia baina etorkizun handikoa

1997tik Euskal Herriak unibertsitate berri bat du, Mondragon Unibertsitatea, alegia. Deba Garaian kokatua, kooperatiba-munduaren bihotz-bihotzean, oso zentro berezia da, ez ohikoa, eta funtzionamendua zein ikasketak kooperatiba-munduari eta industriari daude loturik.

Hiru fakultatek osatzen dute Mondragon Unibertsitatea: OÒatiko Enpresa Zientzien zentroak; Humanitateak eta Hezkuntza Zientziak garatzen dituen Eskoriatzako eskolak eta, azkenik, ingenieritza **ardatz** moduan duen Arrasateko ikastetxe nagusiak. Ikasketa guztiak, sozio-ekonomiko arlora daude zuzendurik eta batxilergoa zein selektibitatea gaindituak behar dira izan bertara sartu ahal izateko.

Zentrua txikia da, ordea. 2.800 ikasle eta 300 irakasle aritu dira joan den ikasturte honetan eta muga ere dagoeneko jarria dio bere buruari: Mondragon Unibertsitatearen helburua 4.600 ikasle edukitzea, gune txikia baina kalitatezkoa bultzatuz.

Ingenieritzarekin eta ikerkuntzarekin zerikusia duten karrerak bultzatzen ditu Mondragon Unibertsitateak eta ikasleen eta lan-munduaren arteko harremana zuzena da oso, gehienek kooperatibetan lan egiten dutelako, ikasketak eta beharra uztartuz. Honela, ikasketak ordaindu ahal izateko dirua lortzeaz gain, ikasleek enpresa mundua barru-barrutik ezagutzen dute, ikasketak lan munduan **txertatuz** zuzen-zuzenean.

Horretaz gain, Mondragon Unibertsitateak munduko beste unibertsitate batzuekin harremanak sendotzen ahalegin berezia egin du eta Europa zein Estatu Batuetako fakultateetara bidaltzen ditu gazteak, kanpoan zertan ari diren ezagutu eta gero han ikasitakoa hona ekar dezaten.

Deba Bailarako enpresekin harremanak ere asko eta ondo zaintzen ditu Mondragon Unibertsitateak, enpresak unibertsitatearen jardueran inplikatuz -errektore taldeko partaide dira- eta ikerkuntza eta teknologia beharrak bi bidetako zubi bilakatuz: unibertsitatetik enpresa-mundura eta alderantziz.

Ardatz: *eje*
Baino: *baizik, besterik*
Batu: *sumar*
Bezero: *cliente*
Desoreka: *desequilibrio*
Egunez egun: *de día en día*
Eraikuntza: *construcción*
Ertain: *medio, mediano*
Esparru: *arloa. Sector*
Etekin: *mozkina. Provecho*
Gainontzeko: *resto, restante*
Gardenki: *transparencia*
Hautazko gai: *materia opcional*
Iratzargailu: *despertador*
Jarrera: *portaera. Actitud*
Josi: *bete*
Legez: *bezala*
Lekuko: *testigo, testimonio*
Merkataritza-gune: *centro comercial*
Oroitzapen: *gomuta. Recuerdo*
Samur: *erraza*
Txertatu: *insertar, injertar*
Urratu: *rasgar, roturar*
Zuzenbide: *derecho*

HIZTEGI ARTEAN JIRA-BUELTAKA

Ikasturte berriari heldu diogun honetan, gure hiztegia osatzen duen hitz-zerrendari adiera berri batzuk eransten saiatuko gara. Horretarako duzu hurrengo hitz-multzoa.
Irakur ezazu eta saia zaitez bereizten hezkuntzarekin zerikusi zuzena daukatenak, marraztu dugun kaxan sartuz. *(Zuzenketa-orria **39**.or.)*

Ikasturte
Jangela
Guraso-elkarte
Testu-liburu
Iratzargailu
Gastu
Hezkuntza
Eskola
Matrikula
Haur
Zentro
Ikastetxe
Ikastaro
Ikasketa
Ikasle
Irakasle
Ikasgai
Karrera
Kurtso
Material
Liburu
Eskulan
Etorkizun
Deskontu
Txertatu
Gune
Amu

Autoikaskuntza gela h

ABEGI EUSKALTEGIAK

Autoikaskuntza-gela eta telefono-sistema jarri ditu martxan ABEGI euskaltegi taldeak. Euskararen irakaskuntzan bide berria da, gizartearen **premietara** egokitua.

Ikasteko beste modu bat eta aukera zabala eskaintzen du: ordutegi **malguak**, nor bere erritmoan aritzea, edota lantokitik bertatik ikastea. Espazio eta mugak hausten ditu.

Hausnarketa prozesuak, ikerketa lanak, hizkuntzen irakaskuntzarako metodo eta teknologia berriek eta beste hizkuntzetan **garatzen** ari diren esperientziak ezagutzeak ahalbideratu du **ekimen** hau. Proiektua gauzatu ahal izateko, ABEGIK bere giza baliabide guztiak jarri ditu lanean eta egitasmo berean ari diren euskaltegiekin eta HABE erakundearekin izan duen elkarlana ezinbestekoa izan da.

Autoikaskuntza-gelak bost txoko ditu eta horietako bakoitzak funtzio propioa du. Ordenagailuaren txokoan, Habenet web orria eta Hezinet programa informatikoarekin .Era berean, Entzumen eta Irakurmenaren txokoak eta fitxen eta Mintzamen txokoak ere badira euskaraz idatzi eta mintzatzeko.

Telefono-sistemak ere etxetik, lantokitik edo beste nonahitik euskaraz ikasi edo hitz egiteko aukera emango die ikasle eta irakasleei.

Ohiko ikastaroak eskaintzeaz gain, lan-arloan dauden hizkuntz beharrak eta sektore bakoitzak dituen helburu eta premiei erantzuten dihardute, hala nola, hezkuntzan, irakasleen hizkuntz prestakuntza garatzen, enpresetan, erabilpen-planetan parte hartzen, lanerako euskara irakasten, administrazioan, langileak trebatzen...

Proiektu honek pauso berriak markatzen ditu euskararen irakaskuntzan. Batetik, euskaltegien azpiegitura informatikoa eraberritu dute, Habenet sareak eskaintzen dituen internet eta intranet erabiltzeko. Sare horiek ikasleei hizkuntza ikasteko komunikazio aukerak zabalduko dizkie eta irakasleek, berriz, etengabeko prestakuntzan informazioiturri garrantzitsuak izango dituzte.

Bestetik, ekimen honek espazio eta denboraren mugak hausten ditu eta ikasprozesua du helburu. Autoikaskuntza irakaslearen presentzia fisikorik gabe ikastea da, klasetik kanpo eta irakaslearen kontrol zuzenik gabe. Horrez gain, lan egiteko modua ere berezia da, baliabide ugari jartzen baita ikaslearen esku. Ohiko taldeetan bezalaxe hemen ere ikaslearen autonomia bultzatu nahi da. Horretarako, aholkulariaren laguntza eta autoikaskuntzarako egokitutako materiala eskaintzen zaio ikasleari.

Horrekin guztiarekin ikasleak errazago eta azkarrago ikasiko du, euskalduntze-alfabetatze prozesuan izaten diren aldapa gogorrak arindu eta askotan eguneroko jardunean gertatzen diren oztopoak eta eragozpenak **gainditu**ko ditu.

Autoikaskuntza gela eta telefono-sistema ezaugarri eta behar ezberdinak dituzten ikasleek erabil ditzakete:



GUNEA
elduen euskalduntzean

Euskaltegiko eskolen osagarri gisa, beren ikasprozesua indartu eta azkartu nahi duenak.

Ikasestiloagatik, izaeragatik, helburu propioak dituelako, bakarrik ikastea gogoko duenak.
Erritmo eta ordutegi finkoari jarraitu ezin diotenak.

Euskaltegira etorri ezin denak.

Lehen esan bezala, autoikaskuntza-gelan arituko den ikasleak aholkulari bat izango du ondoan. Aholkulariak eta ikasleak elkarrekin egingo dute lan, hasierako diagnosia egiterakoan, ikasprozesuan aurrerabideak zehazterakoan eta autoebaluatzeko irizpideak markatzerakoan.

Autoikaskuntza-gela honetan txokoek garrantzi handia dute. Txoko bakoitzak bere funtzio eta material propioa du:

ORDENAGAILUAREN TXOKOAN: Habenet eta Hezinet aurkituko ditu. Habenet, HABEk sarean jarri eta Intranet eta interneterako sarrera eskaintzen duen web orria da. Eta Hezzinet, berriz, HABEk euskaltegiei eskaini dien euskara ikasteko programa informatikoa da.

FITXEN TXOKOAN: Ikasleak ariketak izango ditu paperean. Horrez gain, hiztegiak, kontsulta-liburuak, argitaratutako materiala.

ENTZUMENENAREN TXOKOAN: Telebista, bideo-zintak, kasetak...daude.


MINTZAMENAREN TXOKOAN: Lagunekin **solasean aritzeko** proposamenak eta jokoak izango ditu.

IRAKURMENAREN TXOKOAN: Literatur liburuak, aldizkariak, egunkariak izango ditu eskura.

Honen guztiaren xedea ez da irakaskuntza tradizionala ordezkatzea, euskaltegien eskaintza zabal eta osatua gizarteari heleraztea baizik.



Ahalbideratu: *posibilitar*
Ekimen: *iniciativa*
Gainditu: *garaitu. Superar*
Garatu: *desarrollar*
Hausnarketa: *gogoeta. Reflexión*
Malgu: *flexible*
Premia: *beharrizana. Necesidad*
Solasean ari: *berriketan ari. Charlar*



José Mª Iturzaeta Mendia
Pedagogoa eta Hezkuntz Orientatzailea
EMAKUNDE 38, 2000 martxoa, 39. or. (moldatua)

Gure gizartean oraindik ere ume baten jaiotzak ez du eragin berdina ama eta aitarengan. Aitatasunak ez du gizon gehienen proiektu pertsonala oztopatzen; ez da gauza bera gertatzen emakumeen kasuan. Hauetako askok beren proiektu profesionala alboratu eta umearen zainketa eta etxeko arduretan zentratzen dute beren bizitza. Lan merkatuan mantentzen direnek ere ikaragarrizko esfortzua egin behar dute lana eta amatasuna bateratzeko. Oraindik ere gizonen inplikazioa umeen zainketan askoz ere txikiagoa denez, egoera honek emakumeei "lanaldi bikoitza" sortzen die eta kasu askotan frustrazio ugari, bai lan profesionala bai amatasuna ezin dutelako nahiko luketen bezala garatu.

Haur Eskolek egoera sozial honi erantzuten diote, gurasoei aukera ematen dietelako desiraturiko haurraren zainketa bere bizitza profesional eta pertsonalarekin bateratzeko.

Planteamendu hau, halere, ez dator bat tradizionalki egiten den "amatasunaren" defentsarekin. Hori dela eta, gizartean zabalduta dauden jarrerengatik eta genero estereotipoengatik, oraindik ere beren haurrak dedikazio osoz zaintzen



ez dituzten amak kulpabilizatu egiten dira. Honek, noski, beren garapen eta proiektu pertsonala baldintzatu egiten ditu. Gizonezkoek, berriz, beren aitatasuna eta bizitza-proiektu bat egiteko ez dute holako oztoporik aurkitzen. Susmagarria da langabezia handiko garaietan haurra amaren ondoan egotea egokiena dela sinestarazten digutela. Emakumeak beren "etxeko erresumara" bidaliz, langabezia-tasa jaistea lortzen da, berriro ere beren beharra izan arte.

Ezin dugu ahaztu, umearen garapenean garrantzitsuena ez dela umeak familian ematen duen denbora, baizik eta familia-mailan ematen diren harremanen kalitatea. Eta kalitate hau ziurtatzeko ezinbestekoa da bai aita eta bai ama beren bizitza era integratu batez bizitzea, hau da, esparru pertsonala, familiarra, soziala eta profesionala era orekatu batez garatuz, honek eredu baikorra eta integrala eskainiko baitio umeari.

Honen guztiaren ondorioz, haurrei zuzendutako zerbitzuak erantzun egokia bilakatzen dira, batez ere bi arrazoirengatik:

• Alde batetik, planifikatutako testuinguru hezitzailea eskaintzen dutelako eta hau aberatsa da haur guztientzat.

• Bestalde, gurasoen, eta batez ere amen, bizitza pertsonala, familiarra, soziala eta profesionalaren bateragarritasunerako funtsezko tresna direlako. Eta honek, noski, haurren eta gurasoen arteko harremanak hobetzen ditu.

Hau guztia jakinda, haurrei zuzendutako zerbitzuek beren izaera ere aldatu dute: haurrak zaintzeko toki izatetik, Haur Eskolak izatera pasa dira. LOGSEk berak 0-6 urte bitarteko etapari hezkuntzako etapa-trataera eman dio. Lege honek beharrizan sozial bati erantzuten dio hezkuntza planteamendu bat eskainiz. Eta planteamendu hau haurraren sozializazio eta garapenerako egokia denez, haur guztiei zabaltzen die, beren gurasoen lan egoera gaindituz.



Argazkia: Mikel Arrazola, Lehendakaritzako artxibategia

Testua irakurrita, aukera ezazu AITATASUN eta AMATASUN hitzen definiziorik egokiena

AITATASUN / AMATASUN

a) Ama/aita bere seme-alabez elkartzen duen lotura
b) Gizon/emakumeek seme-alabak munduratzeko duten gaitasuna
c) Gizon/emakumeek beren seme-alabekiko duten maitasuna
d) Ama/aita batek adin batetik aurrera duen umeekiko maitasuna

Erantzun zuzena: a)

Bukatzeko, esango nuke zenbait sektoretatik umeen zainketarako egiten den familiaren defentsa idealizatua, genero estereotipoetan eta aurreiritzietan oinarritzen dela eta emakumeengan eragin ezezkorra duela: errudun- sentimenduak, frustrazio-sentimendua, lan edota bizitzaproiektua alboratzea, e.a.

Haurrei zuzendutako zerbitzuak, berriz, beren antolamendu eta tipologia ugaritzen duten neurrian, irtenbide egokiena lirateke umeen garapenerako baldintzei eta familien beharrei erantzuteko. Izan ere ezin dugu ahaztu sozializazio-testuinguru desberdinak eskaintzeak, koordinaturik dauden neurrian, haurraren garapena aberasten duela. Era berean, gurasoek (ama eta aita) beren bizitza modu integratu batez bizitzen dutenean umearentzat eredu baikorrago bilakatzen dira.

Haur Eskolek, beraz, irtenbide integratzailea eskaintzen dute, errealitatean ematen den egoera familiarra eta soziala kontuan hartuz, erantzun hezitzailea ematen dutelako.

LANTOKIA GURASOEK SORTU, ONDORENGOEK JARRAITU...







Gurean lantoki txiki eta ertain ugari baita, seme-alabek gurasoen aginduetara egiten dute behar maiz, edo alderantziz. Baina begibistakoa da erantzukizunak, betebeharrak, eskubideak... ez direla bertsuak nagusi izan ala menpeko izan.

Guk oraingo honetan bigarren belaunaldi horrek enpresa nola ikusten duen jakin nahi izan dugu, zer iritzi duen seme edo alaba batek gurasoak haien patroi izateaz. Hiru lan-mota aukeratu ditugu: hondartza-garbitzailea (Alex Barbier), tabernaria (Antton Aranburu) eta giltza-egilea (Igor Altuna).

Elkarrizketatu guztiek komentatuko dute zein diren horrelako enpresetako alderdi on eta txarrak. Aipatu dituzten batzuk eta guk asmatutako beste batzuk idatzi dizkizugu segidan. Asmatuko al zenuke zein diren gero benetan azalduko direnak? ***(Zuzenketa-orria 40 .or.)***

Bertsu: *antzekoa*
Betebehar: *egiteko, eginkizun... Quehacer*

ALDERDI ONAK

- Jende ezagunaren artean lan egiteko parada izatea
- Konfidantza handiagoa edozertarako
- Zeuretzat lan egiten duzu
- Ez duzu langabezia-arazorik
- Denbora librea behar izanez gero, hartzea errazagoa da
- Erabakiak azkarrago hartzen dira bestelako enpresetan baino

ALDERDI TXARRAK

- Kalean jende askok lana eskatzen dizula
- Ordu gehiago sartu beharra
- Eztabaidak etxetik lanera eta lanetik etxera doaz
- Oporrak hartzeko garaian, ezin ados jarri
- Aspergarria da beti laneko gaiez hitz egitea
- Senideen artean haserretzeko aukera handiagoa dago

LANTOKIA GURASOEK SORTU, ONDORENGOEK JARRAITU...

ALEX BARBIER

Zarauzko malekoian jarri genuen **hitzordua** Sanemar enpresako Alex Barbierrekin. Besteak beste, hondar-tzak garbitzen dituzte, Gipuzkoakoak, Donostiakoak izan ezik, Hondarribitik Mutrikura arte... urte osoan. Urtea lau denboraldietan banatuta dute: negukoa, udakoa, uda aurrekoa eta Aste Santukoa. Ondarreta hondartzako pirautxoak ere beraienak dira.









HABE.- Enpresa familiarra da. Zenbat lankide zarete?
ALEX.BARBIER.- Hogeita bost inguru, tartean familiako lau: aita, arreba. anaia gaztena eta ni neu, anaia zaharrena. Aitak sortu zuen enpresa 1991n. Beraz, datorren urtean 10 urte beteko ditu.

H.- Zein da zure eginkizuna enpresa horren barruan, edo **denok** denetik **jakin behar duzue**?
A. B.- Gutxi gorabehera, baina beno... Anaiarik zaharrena naizenez, ardurarik gehien duena naiz. Gerentea aita da, baina nik ere betebehar berak ditut, dena kontrolatu: makinak nola dauden, langile berriak, lanak antolatu, udaletxeekin harremanak zaindu, Aldundiarekin...

H.- Enpresa sortu zenetik izan al duzu orain duzun eginkizuna?
A.B.- **Denbora joan ahala** gero eta ardura gehiago hartu dut. Adibidez, hondartzen arduradun nagusia Angel da; lehen nik egiten nuen lan hori, eta gero ardura gehiago hartu nituen eta bulegora pasa nintzen, papeleoa....

Familia eta lana bereiztea zailena

H.- Eta zein alderdi on eta zein txar ditu sendiaren enpresa batean lan egiteak?
A.B.- Alderdi onak: beti jende ezagunaren artean zaude, eta zerbait egin behar baduzu, eta denbora librea behar baduzu, errazagoa da. Alderdi txarretik, eztabaidak etxetik lanera eta lanetik etxera doaz. Komeni da bereiztea zer den familia eta zer den lana. Hori da zailena. Oporrekin adibidez, ni bigarren semearen zain nago, arreba ere bai... hor oporren datak aukeratzeko orduan eztabaida txikiak sor daitezke... Edo anaiarekin eztabaidaren bat izaten badut igandeko bazkarian, gero astelehenean bulegoan zaila izango litzateke ondo eramatea.

H.- **Langile xume izateari utzi** eta beste erantzukizun batzuk hartu dituzunean, zure izaera aldatu egin da, zorrotzago bihurtu zara...
A.B.- Oraingo ikuspuntutik hobeto ikusten da dena. Hobeto ulertzen ditut egunero sortzen diren arazo txikiak, eta eskarmentu horrekin hobeto ulertzen diet arazoren bat planteatzen didatenean, adibidez, Santik toldoren bat edo aulkiren bat hautsi duelako...

Denbora joan ahala: *a medida que pasa el tiempo*
Denok jakin behar duzue: *DENOK horrek ez du esan nahi aditza 1 pertsona pluralean jarri behar denik ezinbestean, 2. pertsona pluralean ere jar daiteke: duzue*
Hitzordua: *cita*
Langile xume izateari utzi: *zeri utzi, langile izateari*

ANTTON ARANBURU

Elkarr

Tabernaren izena Bikale da. Bi belaunaldiko senideak ari dira lanean, gurasoak eta Antton Aranburu semea. Bi berezitasun ditu Beasaingo Bikalek aspalditxotik. Alde batetik, koktelak eta, bestetik, jende gutxi dagoenean, eta giro lasaia, magia-jokoak egiten dituztela aita-semeek **bezeroen harrigarri**. Pintxoak ere kontuan hartzekoak dira, Ordiziatik ere jendea joaten zaie, pentsa!







HABE.- Beti sendiarena izan al da taberna?
ANTTON ARANBURU.- Ez. Aurretik beste bi nagusi izan ditu, Felisa, eta gero hartu zuen nere osabak batek, oso denbora gutxian, eta bi urteen buruan nere gurasoek. Hogeita hamairu urte egin dituzte, eta gero beste bi daramazkit. Festetan eta astebukaeretan beste mutil bat edukitzen dugu. Beste arreba bat daukat, baina oso denbora gutxian aritu da, **ze** bere lana dauka, eta tabernaren asuntoa ez zaio asko gustatzen. Ni neu txikitatik hasi nintzen, botilak kajatan sartzen, txikitoak zerbitzen eta horrela piskana-piskana...

H.- Ze alderdi on, zein txar ditu gurasoak zeure "nagusi" izateak edo?
A.A.- Urtetan gurasoak izan dira neure nagusi eta orain, aldiz, ni naiz beraien nagusi edo... Abantaila bezala dauka, gurasoak edo semea, beti prest gaudela eta errazago eramaten da negozioa kanpoko bat hartu beharrean. Kanpokoarekin beti mesfidantza gehiago... Eta ordu gehiago sartzeko orduan, beti familiakook errezago daukagu...

H.- Eta hori zer da ona, txarra?
A.A.- Segun. Seme bezala, eta gurasoentzako lan egiteko garaian beti desabantaila bezala ikusten duzu, ze ez daukazu denbora ateratzeko eta guzti hori, baina orain kontrakoa gertatzen da, eta gurasoak kexu dira...

H.- Negozioa oso era ezberdinean ikusten da nagusi izan ala ez izan?
A. A.- Ardurak asko esan nahi du. Lehenago gurasoak uzten nituen hemen eta nahi nuenean Donostia aldera edo alde egiteko libre nengoen. Momentu honetan lotuago... eta hemen egon beharra sentitzen dut nahiz eta asko laguntzen didaten gurasoek.

H.- Oporretararako arazorik bai?
A.A.- Familia guztia hartzen ditugu garai berean, eta familia guztia joaten garenez...

H.- Nagusi bezala zer nahiago duzu, zure menpekoak familiakoak izatea, kanpokoak?
A.A.- Orain kanpoko mutil bat daukagu eta **ondo moldatzen** naiz bai berarerekin bai gurasoekin. Baina lehen esan dizudana, ordu jakin batzuk sartu behar direnean, nahiago dut familiakoak geratzea.

Beti aurpegi alaiarekin

H.- Erraza da familiako negozio batean etxeko eta laneko arazoak nahastea?
A.A.- Momentu batzuetan gerta liteke etxeko arazoak hemen sentitzea, baina nahiz eta buruan eduki jendearen aurrean saiatu behar duzu normal egoten. Aurpegi alaia eta... Azkenean ikasi egiten duzu nahiz eta erraza ez izan.

H.- Zu nagusi bihurtu zarenean hartu duzu erabakiren bat, hor lo egon dena zu nagusi **noiz izango zain**?
A.A.- Garbi ikusten da edadearen diferentziagatik... Gure aita beti izan da musika jartzeko garaian... ni saiatu naiz piskat gazteentzako musika jartzen, argiak piskat itzali eta, diferentzia bat egiten gure aitak zeukanetik.... Aldaketak izan dira, musika eta argiak batez ere. Nik hartu nuenean segituan obra egin nuen, dekorazio aldetik eta... Sumatu dugu jende gehiago etortzen zaigula eta oporretarako ixten dugunean, erabat aldatuko dugu dena, margotu...

H.- Zeinen asmoa izan zen magia-jokoak egitea?
A.A.- Gu saiatzen gara jendea oso lasai eta dagoenean, edo ez duela hitz egiten ikusten dugunean, magia-joko batzuk egiten, beste batean etortzeko gogoarekin geldi-tzeko... guri ere interesatzen zaigu eta. Aita hasi zen, izango dira lau edo bost urte. Hona mundu horretan aritzen den mago bat etortzen da, aitari truko batzuk erakutsi zizkion eta gero nik ere ikasi ditut.

Bezeroen harrigarri: *bezeroak txunditzeko*
Noiz izango zain: *izan arte*
Ondo moldatu: *llevarse bien*
Ze: *ya que*

izketa

LANTOKIA GURASOEK SORTU, ONDORENGOEK JARRAITU...

IGOR ALTUNA

Eskua patrikan sartu eta etxeko giltzaren bat hartzen baduzue, litekeena da JMA hizkiak ikustea. Egunero milioitik gora giltza egiten dituen Arrasateko enpresa bat da, Igor Altunaren aitonak, Alejandro Altunak sortua. Emazteak ere bertan lan egiten dio Igorri, eta baita aitak ere, eta bi lehengusuk, eta osaba, Arrasateko alkate-ohia, **ez da erretreta hartu zaharrra** JMAn.... Italian, Mexikon eta Argentinan ere bada JMA. Gu Igor Altunarekin egin genuen solas Arrasaten. Atzean, koadro batean, aitona guri entzuten....





HABE.- Noiz sartu zinen JMA enpresan, eta zein da zure egitekoa egun?

IGOR ALTUNA.- Eskola profesionalean nengoen, eta maestria egiten duzunean daukazu goizetik estudiatu eta arratsaldean lana. Zelan nere aitaren enpresa zen, sartu nintzen 16 urterekin arratsaldetan lan egitera. 34 urte dauzkat. 16 urtetik 18 urtera hemen egon nintzen, 18kin joan nintzen Italiara diseinua egitera, 3 urte. Bueltan berriro ere joaten nintzen enpresara. Gauza on bat eduki dugu: aita konturatu zela honaino heltzen zela, hau goraka zihoala, eta onena jende oso prestatua ekartzea zela, eta halaxe egin dugu. Ni neu marketin-zuzendaria naiz gaur egun, giltzen katalogo denak egiten ditut.

H.- Sorreratik izan da familiarena...

I.A.- Aitonak egin zuen 1942an, aitonarekin batera zeuden lanean aita eta osaba, eta gero hasi ginen bakoitzaren semeak sartzen eta orain gaude nere aldetik hiru, beste aldetik bi, eta emaztea.

"Horrelako enpresa handi batean apellidua ez da ezer"

H.- Ze alderdi on eta zein txar ikusten dizkiozu...?

I.A.- Alderdi onak? Zure enpresa da eta zuretzako lan egiten duzu. Ez duzu lan problemarik, ze lana topatzea zaila da. Alderdi txarrak? Ba kalean jende askok lana eskatzen dizula... Gero guk geure enpresan daukagu **hitzartuta**, familiako inor ezin dela gerente ezta goi-kargu izan. Horrelako enpresa handi batean apellidua ez da ezer, jende ona behar duzu. Ze bezeroal esaten digu **mesfidati**, "enpresa familiarra?" Izan ere, askotan arazoak izaten dira, eta guk hitzartutakoa aipatzen diegu klientei. Italiara joan nintzenean aita zen gerentea, eta ez da erraza gerentea izatea eta Gernikako Jose Marìa Isuntza ekarri genuen, ez familiako bat.

H.- Zeure gainetik baduzu sendikoren bat?

I.A.- Ez. Gainetik gerentea eta zuzendari komertziala daude. Kanpokoak dira, eta esaten dutena egin behar dut. Aita oraindik ere lanean dabil goizero. Gerentea dagoenean bera **aldamenean** jarri eta iritzia ematen du, baina erabakia gerentearena da, edo zuzendari komertzialarena. Batzuetan arazoren batekin **joan natzaio** eta esan izan dit hori gerenteari galdetzeko, horretarako dagoela... Hobeto horrela.

H.- Batzuetan zail izaten da etxeko arazoak eta lanekoak bereizten. Zuek asunto hori nola...?

I.A.- Emaztearekin egunero hasten banaiz berbetan lantegiari buruz, esaten du: "bale, nahikoa da!" Gero **domekaro** familiako guztiok bazkaltzen dugu, orduan amak ebakitzen du: "basta! lantegiko arazoak lantegian" Kalean, adibidez, nire lagun askok lantegian egiten dute lana, beti daude oporretako asuntoak, zuk zenbat egun dauzkazu oporrak?...

H.- **Aldatu ederra** hartuko zuen enpresak hainbeste urtetan!

I.A.- Ni sartu nintzenean 30 langile ginen, orain 130, Arrasaten. Beste hiru enpresa ditugu Italian, Mexikon eta Argentinan. Anaiak batzuetan esaten dit hobe zela garai batean bezala, jende gutxi eta denak elkarren ezagun, baina tira. Baina harreman oso onak ditugu langileekin. Agian horregatik ez dugu sindikaturik lantegian, langileek ez dute nahi izan. Familia askotako jendea dago, Bergarako Rodrìguez, aita eta hiru seme... anaia asko... Guk, adibidez, saihestu dugu familiakoak sartzea; ona bada, bere bidetik joan dadila. Ona bada, ez dauka arazorik lana bilatzeko... Langileari galdetzen diogu: "ezagutzen duzu **baten bat** lanpostu honetarako?" Askotan esaten dizute bai, eta askotan ez. Ez pentsa erraza denik jendea aurkitzea. Gure lantegian jendeak etorri behar badu larunbatean, igandean, etortzen da arazorik gabe, baina guk ere berdin egin behar dugu.

H.- JMA euskararekin oso arduratuta dago, sendikoekin euskaraz hitz egingo duzu etxean, baina jokaera horri eustea gaitzago izango da beharrean.

I.A.- Etxean euskaraz egiten dugu, baina lanean zelan denak elkarren ezagun garen, badakizu egunero ze hizkuntza erabiltzen duen bakoitzak, baina batzuekin beti egiten dugu euskaraz. Euskara ondo dator kanpora joaten zarenean, Italiara, Alemaniara, AEBetara, beti dago norbait erdaraz dakiena eta guk euskaraz egiten dugu, eta eurok ez dakite ezer. Hori beti ondo dator, Espainian salbu.

Aldamenean: *a su vera*
Aldatu ederra: *aldatu: aditza sustantibo balioarekin. Aldakuntza. Era berean, berritu ederra, izerditu ederra, nekatu ederra...*
Baten bat: *Norbait*
Beharrean: *lanean*
Domerako: *igandero*
Ez da erretreta hartu zaharra: *orain dela gutxi jubilatu da*
Hitzartua: *adostua*
Joan natzaio: *berarengana joan*
Joera horri eustea: *mantener. Eutsi aditzak nori eskatzen du (joera horri)*
Mesfidati: *desconfiado/a*

Begoña del Teso

Sagutxoak gehi oil



Jakin badakizue zer gertatzen den gure pantailetan uda ailegatzen denean. Hasiera batean, **biltegian** hautsa hartuz egoten ziren pelikula kaskarrak plazara ateratzen dituzte bana-tzaileek eta aretoen jabeek. Zergatik? Erantzuna erraza da oso: jendeak azterketa **sasoia** izaten du uda. Edota bapo-bapo terrazetan egoten da. Edo, aurten behintzat, Eurokopa ikusten telebistan, edota kasik bakazioetan. Edota hondartzarako bidean udaro. Edota... auskalo! Ez da, ez horixe, ez prexixo, estreinu handi-handiak egiteko sasoirik ederrena, egokiena urtaro hori.



1 *Chicken Run*


Gero gerokoa. Apurka-apurka udako menturetara ohitzen gara. Eguzkipean egoteko **grina** asetzen dugu, baretu, sikiera, bederen. Libre samar bagaude, akaso, batek daki, egunaren 24 orduak gureak izaten dira. Bo, lehendabiziko egunetako kalenturak sendatu eta gero... zinemara bueltatzeko une eta gunea iristen zaigu. Familiako txikienen konpainian, jakina, asko. Horrexegatik ekainean eta uztailean pantailara salto egiten duten pelikula kasik gehienak marrazki bizidunak dira. Abere majo eta jatorrez gainezka dauden zeluloide-puska animatuak. Ez, ez dugu ezer kontra. Egia esan, behar badugu, gustuko ditugu Stuart Little bezalako saguak edo beti ametsetan ari den Ginger oiloa. Egia esan behar badugu, beti maitatu izan ditugu Winnie the Pooh hartz txikitxoa...



2

Ez ahaztu, bestalde, geroxeago, abuztuan geundela, Tom Cruise eta lagunak izan genituela ondoan... Horixe da, urtez urte, betiko plana, betiko martxa, betiko leloa...

Hizketan, barrez, negarrez, dantza eta **matxinadan** dakiten animaliok izan ditugu udako lagun, udako kide eta konplize. Izarrik distiratsuena Stuart Little izeneko sagutxoa izan dugu geurean. Ez zitzaigun etorri konpainia txarrean. Pentsa ezazue haren abenturak zuzendu zituen Rob Minkoffek "El rey león"en parte hartu zuela. Ez ahaztu "El sexto sentido"ren egilea den M. Night Shyamalan filmak dituen bi gidoigiletako bat denik. Ez ahaztu giza aktoreen artean "Bitelchus" eta "Thelma eta Louise"n ezagutu genuen Geena Davis emakume estrainoa dagoela...



3

"Stuart Little" laztandu zuten zinema areto guzti-guztietan. Estrenatu orduko, aldizkari, egunkari, egutegi eta albistegi denetan agertu zen familia baten desio handi-handia zuen ondo jantzitako sagutxoa. Ordurako, ezagutu aurretik, maite genuen. Ordurako, ikusi baino lehenago udako esperantza gurea Stuart Littlengan genuen jarria.

oak gehi kabutziak



4



5



6

Gero gerokoak, jakina. Gero zera gertatu zen, Stuart Little jatorra zela, jatorra oso. Gehiagorik ez, ordea. Malezia ez zuen soberan eta jende hain izen onekoak eskaini zigun kontakizuna tolesgabea, oso tolesgabea zen. Lastima. Halare, ez pentsa, oraindik ere Stuart maitatzen dugu.

Tigger izeneko tigretxoak ere familia bat behar zuen uda honetan. Tigger izeneko tigretxoa Winnie The Pooh hartz herabe eta txanfarin horren lagun mina da eta sekulan ez zen orain arte pantaila handian azaldu. Uda honetan lortu du. Bere bi amets gauzatu dira. Alde batetik, zinema-izarra **bilakatu** zaigu eta, bestalde, familia aurkitu du. Guk, ordainsari modura, "Mary Poppins"eko kantuak sortu zituzten Sherman anaien abesti berriak entzun genituen... Gaitzerdi.

Askozez konpainia maltzurragoan ibili ginen "Evasión en la granja"ren aurrean pausatu ginelarik. Wallace eta Gromit bezalako pertsonaia berezi-bereziak, britaniar peto-petoak, asmatu zituzten Nick Parkerrek eta Peter Lordek norekin eta Spielbergekin sinatu zuten kontratu "kategorixakoa" eta "Chicken Run" izeneko malezia plastilinazkoa sortu zuten. Bertan Ginger oiloak matxinadarako deia zabalduko du baserrian gizaki gaiztook kontra egiterik ez dugula...

Izan genuen, bada, familia bat behar zuen sagua. Izan genuen, bada, udan bere familia propioaren bila zebilen tigrea. Izan genuen, bada, uda parteak matxino samar jokatu zuen oiloa. Zer zegoen faltan? Bada, esaterako, hegan ez zekien kabutzia europarra, katu batek adoptatuko zuena... Izan, izan genuen, ez pentsa. "Historia de una gaviota" zuen izenburu istorio hark eta Luis Sepulvedaren ipuin batean zen oinarritua. Kontakizun lasaia zen. Lasaia eta pipertsua. Majo-majotxoa...



Horiexek, bada, **buka-tzear** dagoen gure udako arratsalde batean izan ditugun amets zeluloidezkoak. Amets zeluloidezko bizidunak. Ah, batekin ez ginen akordatzen, Walt Disneyren "Fantasia 2000". Beethoven eta besteok dantzan eta kantan...

Zuzenketa-orria **40** *or.*

Bilakatu: *convertirse*
Biltegi: *almacén*
Bukatzear: *a punto de terminar*
Grina: *gogo bizia*
Matxinada: *revuelta, revolución*
Sasoi: *garaia*



Amodioa itsua da

Rufino Iraola

Segidan irakurriko duzun ipuinaren gaia etxeko lanen banaketa da. Proposatzen dizugun lana, berriz, ipuina irakurrita, bukaera aldera aurkituko dituzun hutsuneetarako aukeren artean egokiena zein den erabakitzea. *(zuzenketa-orria **40** or.)*. Gogoan hartu hitz horiek testuan hartzen duten esanahiari erreparatu behar diozula.



"Amodioa itsua da". Poeta eta idazle pedante batzuek manipulaturiko perpaus tipiko eta klitxe gastatu horietako bat baino zerbait gehiago iruditzen zait. Gure herriko Maisu Zaharrak esaldi biribil-biribila, eder-ederra, erabiltzen zuen izenburuko horri indar emateko: *"Participa de la naturaleza de la verdad"* Hori bota eta berriro euskaraz jarraitzen zuen: *"Amodioa itsua dun, itsua ezezik txoroa ere bai"* esaten zigun Ibiagako Matilde eta biori, senargaia egin genuela jakin zuenean, nirekin bai baina Matilderekin erabat etsi gabe baitzegoen artean, eta, mundu guztitik!, Zaragozara bidali nahi zuen, mediku ikastera. *"Aurrena oinez ikasi eta gero gerokoak!"*.

- Hori ez dun hiretzat egiten dena, Matilde! -erasotzen zion-. Badakin zuen aitak zer enkargu utzi zidan heriotzako orduan: ardura nendila haren alaba mediku izan zedin. Eta ez, hura bezala, laborari-herri kaxkar bateko mediku, nahiz eta Ibiaga bezalako etxe dotorean bizi, klinika handi batean buruko neurona artean bisturia sartzeak ikaratuko ez duen zirujano ospetsua baizik.

Matildek **ez-aditua egiten** zion. Askoz ere gehiago tirriatzen zuen Ernestorekin orduak galtzeak eta haren bular gainean burua pausaturik pelikulak ikusteak. Bestalde, BRAUN multinazionalean bulegari izateko zeukan parada ez zuen galdu nahi. Biak batuta, Maisu Zaharraren proposamena baino erakargarriago zitzaizkion. Total: pisua bazeukan, senargaia eta lana ere bai. Zertan aritu behar zuen estudiatu eta estudiatu **zipitzik ere** interesatzen **ez** zitzaizkion buru, **berna** edo ipurdiak ikusteko prestatzen, Ernestorenak segitutik han edukita?

- Seinoritoegia dun hori, Matilde. Baina txarrerako. Ibilkera fina eta horrena ez dituk gauza bera; ezta horren hizketa leuna eta edukazioa ere. Fineziak berezkoa izan behar din, imentziorik gabea, eta Ernestorena **imintzio** hutsezkoa dun. Ez dun bergauza finegiz lanik egiten ez duena eta lan egin arren finari berdin-berdin eusten dakiena. Jakeka eta **goragaleak** dexente pena lezaketen horietakoa ematen din Ernestok. Ez hadi harritu lanetik etxeratzen haizenen batean ohean aurkitzen badun.

- Maisu jauna, ez nizuke hitzik ere egin behar. Baina gure aita zenak zizun begirune handiarengatik, eta ez beste deusengatik, erantzun egingo dizut. Oso agindu sinplea, eta betetzeko erraza, izango da: **astin** itzazu etxeko hautsak eta kanpokoei laga bakean, apika hauts tartean bizitzeko sortua naiz eta. Gainera, ez zenuke ahaztu behar, edo ahaztu itxura egin behar, etxean ere baduzula **galtzak bete lan**. Ez ahal zatzaizkit haserretuko semea eta **erraina** zer moduz diren galdetzen badizut! Handia gertatu zaizu seme kuttunarentzat, hain kontu handiz, zerorrek hautaturiko dama txit galanta izateko.

Horrek lotsa pixka bat eman zion. Mina ere bai, hainbeste ahalegin egin ondoren, ezin ebitatu izan baitzuen semearen dibortzioa. Orduan, malkoa begian, Maisu Zaharra oso sentibera baitzen, etsipenez, hauxe esateko adina indar juxtu-juxtu eman zion bihotzak:

ina

- Lagundu egin nahi nizun.

Matilderi ere pena eman zion Maisu Zaharraren zotinak, eta kontsolatu egin nahi izan zuen. Semearen kasuaz mintzatu eta bizitza horrelakoxea zela esan beharrean, ordea, bere etorkizunaz hitz egin zion:

- Badakit *"feminismoa"* eta gisako hitzei gorroto diezuna. Ni ez nauzu feminista. Ez. Baina .....(1) hasiko da nire iraultza. Ernesto izango da Euskal Herriko lehenengo .....(2). Oso gogokoak ditu .....(3), batik bat sukaldekoak. Ikusi egin behar da bakailaoa nola prestatzen duen, hiruzpalau eratara, soziedadean! Ikusi, labean arkumea nola erretzen duen!, ...(4). Hori entsaladak prestatzen ditu!

- Soziedadean! -erantsi zion Maisu Zaharrak, ordurako apur bat bere .....(5) etorririk, edo aterata.

Ez-aditua egin zion berriro ere Matildek eta bereari .....(6) nahi zion ametsaren zurrunbiloan.

Bere buruari .....(7) eta gizarte osoari .....(8) paregabea eskaini nahi zizkien Matildek. Etxetik bertatik hasitako .....(9); azken finean, benetako iraultza eta bakarra.
Baina BRAUNeko .....(10) ez zegoen egunero labean arkumea jartzerik, eta ez dakigu Ernestok makarroiak prestatzen bazekien. Matilderi ahaztu egin zitzaion, ...(11) gainean edo oharkabean, Ernestoren bertigoarena; ez dakigu .....(12) arrimatzeko nola ibiliko zen. Behin haragian Matilderi berari entzunda, ...(13), prezixo, Ernestorekin baizitzen denbora asko ez zeramala, ...(14) egunero egitea txorakeria zela kontari zebilela jakin zuen Maisu Zaharrak, lagun baten bidez.
Gero, beste behin: *"plantxan ez du hain ondo asmatzen, baina..."* esan zuen Matildek Maisu Zaharraren aurrean, apur bat .....(15). Labadoran zein arropa zeinekin sartu, goizean lanera .....(16) separatuta uzten ziola jakin genuen geroago. Gizonari kafesnea ohera eraman behar izaten ziola ere kontatu zuen norbaitek.
Ernestorentzat lan gehiegi, ...(17), eta ontzigarbitzekoa plazotan erosi zutela neroni esana da. Gero lan bila pasatzen zuen Ernestok egun osoa. .....(18) jota zegoen, bajualdia zuen, gizarajoak! Medikuak bizimodua aldatzeko esan zion. Lanik berririk aurkitzen ez bazuen ere, lehengoari uzteko behintzat. Matilderen iraultza-irrika, zalantzarik gabe, gero eta handiagoa izango zen.

1 **a.** kanpotik **b.** barrutik **c.** etxetik **d.** bihartik

2 **a.** neskame **b.** etxekogizon **c.** langile **d.** garbitzaile

3 **a.** ontziak **b.** etxeko gortinak **c.** lan astunak **d.** etxeko lanak

4 **a.** benetan **b.** soziedadean **c.** azkar-azkar **d.** primeran

5 **a.** etxera **b.** aldera **c.** onera **d.** albora

6 **a.** eutsi **b.** entzun **c.** eskaini **d.** utzi

7 **a.** bakea **b.** paradisua **c.** lana **d.** atsedena

8 **a.** lezio **b.** mesede **c.** exenplu **d.** sari

9 **a.** aldaketa **b.** borroka **c.** guda **d.** iraultza

10 **a.** irabaziekin **b.** lagunekin **c.** gailuekin **d.** oztopoekin

11 **a.** guztiaren **b.** jakinaren **c.** buruaren **d.** mahaiaren

12 **a.** kalera **b.** hegazkinetara **c.** eskailerara **d.** leihora

13 **a.** artean **b.** bitartean **c.** berriz **d.** ordea

14 **a.** lana **b.** bazkaria **c.** ohea **d.** afaria

15 **a.** haserretuz **b.** gorrituz **c.** atzeratuz **d.** tristetuz

16 **a.** joateko **b.** joaten **c.** joatera **d.** joaterako

17 **a.** nonbait **b.** zenbait **c.** norabait **d.** nolabait

18 **a.** Bihotzekoak **b.** Birusak **c.** Depresioak **d.** Minbiziak

Astindu: *harrotu. Sacudir*
Berna: *zangoa. Pierna*
Errain: *nuera*
Ez-aditua egin: *hacerse el sordo*
Galtzal bete lan: *lan asko*
Goragale: *gonbitolarria*
Imintzio: *gesticulación*
Zipitzik ere ez: *deus ere ez*

Inkesta

DONOSTIAKO NAZIOARTEKO ZINEMALDIAN ZEIN ANTZEZLE GUSTATUKO LITZAIZUKE IKUSTEA?

Oraingo **solaskide** hauek zinearekin dute zerikusia, guztiek antzoki eta zinemaren batean egiten baitute behar, Donostian. Irailean, **atariko atean** izango ditugu hainbat eta hainbat antzezle, baina guk uztailean egin genien goiko galdera. Ea beren amets ttikiak betetzen diren!

Zaloa Jaime
Tom Cruise, uste dut duela gutxi etorri zela, baina nola orain "Misión Imposible" pelikula atera duen eta famatua den, ba **gutxienez** Zinemaldiarentzat publizitate ona izango litzatekeela pentsatzen dut.

Alvaro Sastre
Nik aukeratutako aktorea Donostiako Zinemaldira etortzeko da Richard Gere nire amak hemen ikusteko gogoa duelako.

Mª Isabel Azpitarte
Anthony Hopkins. **Lehendik ere etorria da**, baina beno, berriro gustatuko litzaidake etortzea. Bera asko gustatzen zait, bere pelikulak ere pila bat gustatzen zaizkit, adibidez, bere pelikula bat, "El silencio de los corderos".

Arantxa Aristizabal
George Clooney eta Pierce Brosnan gustatuko litzaidake etortzea, **ikustea zuzenean**. Eta Julia Roberts ere bai.

Ainhoa Garcia
Ni, egia esan, ez naiz oso mitozalea, baina gustatuko litzaidake "El Dilema" ikusi ondoren Rusell Crowell-ekin hitz egitea.

Luis Danborenea
Ba Marlon Brando eta Elia Kazan etortzea nahiko nuke, beraiek egindako pelikulak oso atsegin ditudalako.

Inkestan irakurri duzunaren arabera, saia zaitez koadroan informazioa behar den bezala antolatzen.

Elkarrizketatua	Antzezlea (k)	Filma
Jaime Zaloa	.....	Mision imposible
Alvaro Sastre	Richard Gere	
Mª Isabel Azpitarte	.....	El silencio de los corderos
Arantxa Aristizabal	George Clooney Pierce Brosnan Julia Roberts	
Ainhoa Garcia	.....	El dilema
Luis Danborenea	Marlon Brando	

Atariko atean: *eskura, gertu*
Gutxienez: *behinik behin*
Ikustea zuzenean: *aurrez aurre ikusi. Verlo/a en persona, en directo*
Lehendik ere etorria da: *lehen ere etorri izan da*
Solaskide: *hizketalaguna. Contertulio*



Babelgo liburutegitik

NUMEROZ SORGINDUTAKO HITZA

Hamabik:	katuk yandako ubik!
Hamaikak:	nonttuk nere diruk!
Hamarrak:	oi, gure behian azpik!
Beretzik:	eltzetik atere haragik!
Zortzik:	berentzako deiak!
Zazpik:	bai erki kostak!
Seiak:	asto zarran lakainkak!
Bostak:	gure behiak yetzik!
Lauak:	eztik barkatzen gauak!
Hiruk:	gure etxen eztuk gorotzik!
Ordu bik:	jainkok ordain tzila gure paltak!
Ordu batak:	gure behian adarrak!

Perurena, Patziku Euskarak sorgindutako numeroak 1993 Irun Hiria Literatur sariak SAIAKERA Kutxa fundazioa

Babelgo liburutegia Euskadi Irratiak duen saio bat duzu. Tarte honetan liburu baten pasarteak eta idatzi duenarekin izandako elkarrizketatxoa entzun ditzakezu. Horren adibide, honako hau:

Patziku Perurena idazlearen Euskarak sorgindutako numeroak liburutik hartutako zatitxo bat duzu segidan. Numeroekin egindako hitz joko bat da baina guk nahastu egin ditugu esaldiak. Irakurri eta saia zaitez bikoteak lotzen.

Zuzenketa egiteko eta liburuaren hasierako pasartea nahiz Patziku Perurenarekin egindako elkarrizketa entzun nahi baduzu, **argitalpenak@habe.org**-ra jo eta egin eskaria.

Carmen Martin Gaite

CARMEN MARTIN GAITE idazlea (1925-2000)

Lagunek Carmiña deitzen zioten.1978. urtean Espainiako Literatur Sari Nazionala irabazi zuen lehen emakumea izan zen uztailaren 23an hil zen Carmen Martin Gaite idazle espainiarra. Genero guztiak jorratu zituen 1925ean Salamancan jaiotako langile nekaezin honek: elaberria, entsaioa, poesia, haur eta gazte literatura, antzerkia, itzulpenak, kritikak.

Salamancako Unibertsitatean ezagutu zuen Inazio Aldekoa idazle arabarraren oso laguna izan zen eta beronen bidez ezagutu zituen Madrilgo literatur-zaleen txokoak.

Bere bizitzan oso trantze txarrak pasa zituen eta idaztea askatasunerako bide izan zen beretzat, bizitzeak sortzen duen saminari aurre egiteko modu bat.



"Hay quien dice que escribir es como parir. Lo dicen generalmente los hombres, que nunca han parido, y que no saben lo mal que se pasa porque si no, no compararían una experiencia tan traumática con la mucho más placentera de dar remate a un libro"

BERE HITZAK

ZERTARAKO IDAZTEN DUGU?
CARMEN MARTIN GAITE*

Zertarako idazten dugu? Askotan egiten diguten galdera da hau. Idazlearen lana etengabe justifikatu behar da, gure giza ekintza guztien artetik idaztearen zertarakoa behin eta berriro adierazi beharra dago: Galdera berriak aidean jartzeko idazten da, gureak ez diren baieztapenak ukatzeko, esaten duten bezain garbi ez dagoena hobeto ulertzen saiatzeko. Norberak dakiena ere zalantzan jartzeko. Urrutiratzeko, kanpoko ikusle batek egingo lukeen bezalaxe, errealitateari begiratzeko eta ezer ez dela ematen duena ziurtatzeko. Gauza gutxitarako idazten dugu eta, era berean, hainbestetarako!

**1998ko Asturiasko Printzearen Saria jaso zueneko hitzaldiaren zati bat.*

Piaget: 20 urte hil zela



Unesco Albistaria, 105. Zkia, 48-49. orr.

JEAN PIAGET psikologo suitzarra (1896-1980)

Suitzako Neuchâtel-en jaio zen, 1896ko abuztuaren 9an eta 1980an hil. 2000. urte honetan, beraz, bere herio-tzaren 20. urteurrena betetzen da.

Gure artean haur-psikologo gisa ezagutua izan bazen ere, biologo eta filosofo ere bazen Jean Piaget.

Piaget haurraren psikologiari buruzko ikerketengatik da ezaguna bereziki eta alor honetan bere metodoa originala da eta helburuak, berriz, zabalak.

Piaget haurraren ikuspuntua ulertzen eta aztertzen saiatu zen, helduen gizarte-arauak eta ideiak gaindituz.

Berak erakutsi zuenez, haurraren jarduera psikikoan ia ezer ez dago estatiko eta funtsezkoak diren nozio batzuk, hala nola, denbora, espazioa, erlazioa eta kausalitatea, haurrak bere lehen urteetan izandako esperientziaren emaitza dira.

Piagetek frogatu zuen haurraren lehen urteetako keinuetan dutela oinarria helduaren nortasuna osatzen duten elementuek.

Piageten ustez, ikasle bat ona ala txarra izatea eskolan erabiltzen den metodologiari egokitzeko duen gaitasunaren baitan dago, askotan. Ikasgai batzuetan txartzat hartzen diren ikasle batzuk, gainditu zitzaketen arazoak bere ikas-prozesuan beste bide batetik eraman izan balituzte. Umeek askotan ulertzen ez dutena ez baita ikasgaia, baizik eta ikasgai hori nola irakasten zaien. Honela, zenbaitetan ulertezina bihurtuko da ikasle-irakaslearen arteko elkarrizketa, helduak gaiak azaltzeko erabiltzen dituen moduak ez baititu ulertzen haurrak. Zenbat eta gazteagoa izan haurra, irakaskuntza zailagoa da eta etorkizunerako ondorioak erakarriko ditu.

Piageten pentsamendua aitzindaritzat jo dezakegu arrazoi askorengatik eta bere obra XX. mendeko altxorrik balioz-koenetakoa da zalantzarik gabe.


PERUTXO
HIRITAR ARRUNTA
FAMATUAK
ONDO DAUDE FAMATUEN EMANALDI HORIEK, A ZER NOLAKO SALTSAK!
BIHOTZ MOÑOÑO
TXORAKERIA GALANTA, NERI EZ DIDATE EZER ESATEN. ASPERGARRIAK!
BIHOTZ MOÑOÑO
KLAP!
HORI BARREGARREKERIA, NIK NAHIAGO DIZKIAT FAMATU PROFESIONALAK, HOBEAK DITUK
KLAP!
HARA, HARA ROCIITO!
S. ORUE / 00

ikia

Hau nahaspila!!

1 Bai bera beste maila batekoa dela uste din, baina bai zera...

2 Ni banoa. Hor konpon zuen famatu horiekin!

3 Eta, azkenean, famatuen mundu hori nahi ez dutenek gauza bera egiten dinate.

4 Jakina, Jorjitori ez zaizkion gustatzen horrelakoak Zergatik?


5 Hori barregarrekeria, nik nahiago dizkenat famatu profesionalak, hobeak ditun.

6 Hara, hemengo kanalean Jorjito ageri dun taberna ezagun batean erakusta bat inauguratzen, je, je, je.

7 Zera: bera artista lokala nola den, beti ari dun erakusketak eta horrelakoak antolatzen.



Soluzioa:




Logika-jokoa



		TRESNA			KONPOSIZIOA			ADINA		
		Bateria	Baxua	Gitarra	Akabo	Ezer ez	Hutsa	Hamasei	Hamazazpi	Hemezortzi
MUSIKARIA	Arkaitz									
	Mitxel									
	Paul									
ADINA	Hamasei		E							
	Hamazazpi	E	B	E						
	Hemezortzi		E							
KONPOSIZIOA	Akabo									
	Ezer ez		E							
	Hutsa									





GORA MUSIKA!

Hiru gazte beren lehen urratsak egiten hasi dira musikaren mundu zail horretan. Konposizio bana egin dute hirurek eta hor hasi dira jotzen lagunen aurrean. Errepertorio mehea bada ere, gogo handia erakusten dute beren saioetan. Ondoko datuak egoki erabiliz gero, dena jakingo duzu: nork zer jotzen duen, zer konposatu duen eta zenbat urte dituen.

Argibideak

Eskeman agertzen den **B** (Bai) letra, 1. saileko datu zuzenak gurutzatzen diren laukitxoan ezarria dago; orobat, **E** (Ez) letraren bidez 1. sailean ageri diren ezintasunak adierazten dira. Datuak arretaz irakurri ondoren, hutsuneak zeinu horiekin (**B**, **E**) bete eta, ondorio zuzenak lortu ahala, soluzio-taulara pasa ditzakezu, guztiak aurkitu arte.

1. Hamazazpi urte dituenak baxua jotzen du, poliki gainera.
2. Arkaitz ez da zaharrena, eta ez bata eta ez beste ez da *Ezer ez* konposizioaren egilea.
3. Bateria jolea da *Akabo* izeneko pieza ren egilea, eta Paulek baino urtebete gutxiago du.

MUSIKARIA	TRESNA	KONPOSIZIOA	ADINA

*Zuzenketa-orria, **40**.orrialdean.*

APASAK

Hitz gezidunak



				*Deitura Aberiak	▼		Harritu Eta	▼		… izan, jardun Zabarkeria	▼		Izan Antzezle	▼					
				▼			▼			▼			▼						
				Nabigazioa Erresuma Batua	▶														
				▶			Zeelanda Berria Galderetan	▶			Etna erdian Haitzuloa		▶						
Musika maite du Filipinetako bat	▼		*Izena Eragiketa bat	▼		Sofriarazten du Ugazaba	▶		▼					▼				Energia-mota	
▶			▼			▼	Edari bizi Eguzki-jainkoa		▶									▼	
Nahiko Hark niri zerbait esan…	▶					▼			Komiki Hor zauden hori	▶									
▶				Seruma Muzin eginez	▶				▼								50 Musu		▶
Aldaxka Ikusi…, zer ikusi?	▶			▼			Uranioa Buruan dugu (edo ez)		▶		Argi-arrasto … izan, atsegin izan		▶				▼		
▶						▼			Apalak Bat	▶	▼								
Musikaren santa Puska	▶								▼			Kontsonantea Lehena	▶		Oxigenoa Su handi	▶			
▶					Bokala Ez du aditzen	▶		Nahasmen handia Suge handia		▶		▼			▼				
Lanik ez du Zer	▶				▼			▼			Urrea Ukatzeko	▶				Ez txar			
▶			Koko erdia Fluoroa	▶			Galdera-partikula Mehea	▶			▼		Tori Bokala	▶		▼			
Arratseko otordua	▶	▼				▼			Zeukan	▶		▼							

Hieroglifoa



Nola erantzun zizun?

Letra-zopa

H	E	U	R	E	G	N	I	A
A	B	E	K	I	S	U	M	I
R	A	I	N	A	D	O	P	A
T	A	T	Z	A	G	U	D	I
Z	T	I	P	A	L	A	S	B
L	A	K	R	R	R	O	A	A
E	F	R	Z	A	T	G	U	H
K	O	R	D	Z	O	L	I	R
B	A	E	N	I	G	A	H	N

Ondo gogoan hartu hitz horiek norabide guztietan aurki daitezkeela.

*Zuzenketa-orria, **40**.orrialdean.*

Ezetz asmatu

1. **Txokolatea azteken herentzia gozoa dugu. XVIII. mendean Europan aski arriskutsutzat jotzen zuten, zentzuak berotzen omen zituen eta... Baina zerekin nahasirik hartzen zuten txokolatea aztekek?**
a) Piperrautsarekin
b) Artoarekin
c) Babarrunekin

2. **Futbola gero eta hedatuago ikusten dugu mun duan osoan. Esaterako, 2003 urtean lehen txapel keta femenino profesionala jokatu behar dute Britainia Handian. Bestalde, badakizu munduan zenbat futbol-talde femenino dagoen gaur egun?**
a) 1.500 inguru
b) 2.500 inguru
c) 4.500 inguru

3. **Noiztik ari da eskiatzen gizakia? Hobeto esan: noizkoak dira eskiaz ditugun lehen berriak?**
a) K.a. 10.000 urtekoak, Norvegiako haitzulo batean aurkitutako grabatuetan ageri baita
b) K.o. III. mendekoak, latinez idatziriko zenbait kroni katan aipatzen baitute
c) K.o. IX. mendekoak, bikingoek hedatu baitzuten eskia Europan zehar

4. **Haur batek jaiotzean, batez beste, 3 kilo inguru pisatzen du. Eta hartz-kume batek?**
a) 300 gramo
b) 3 kilo
c) 5 kilo

5. **- Dela Titanic dela Erika itsas monstruo horiek arazo bera dute: hamasei korapiloko –30 km ordu ko–abiaduran badoaz, erabat gelditzeko gutxie-nez... zenbat minutu beharko dituzte?**
a) Bost minutu
b) Hamar minutu
c) Hogei minutu

6. **Garbitasunaren aldeko argumentua. Hamar bazilo nahikoa da gastroenteritis polit bat harrapatzeko. Eta esango zenuke zenbat germen patogeno era maten ahal duen euliaren hanka bakar batean?**
a) Dozena erdi bat
b) Dozena bat inguru
c) Hogeita hamarren bat

7. **Esango zenuke nondik ikusi eta bereizten duen arranoak geldirik dagoen erbia?**
a) 800 metrotik
b) 2 kilometrotik
c) 5 kilometrotik

8. **Zenbait elkarte marrazoa babesteko eskatzen ari dira. Izan ere, hainbat harrapatzen dira munduan zehar beren olioagatik, azalagatik, gibelagatik, hegalengatik... Zenbatsu urtean?**
a) Milioi bat inguru
b) Hamar milioi inguru
c) Ehun milioi inguru

9. **Emakume eder baten tentazioak zure galera ekar dezake –zortea baldin baduzu. Noren hitzak?**
a) Woody Allen
b) Groucho Marx
c) Augusto Pinochet

10. **Niagarako ur-jauziak famatuak dira munduan. Baina zenbat metro dituzte?**
a) 47 m
b) 62 m
c) 78 m

11. **Herrialde bat nabarmendu egin da azken sei urteetako edertasun lehiaketetan. Izan ere, hango sei neskek irabazi dituzte Miss Unibertso edo Miss Mundu lehiaketak azjeb sei urteotan. Zein da herrialde hori?**
a) AEB
b) India
c) Venezuela

12. **Maiatzaren 14an 373 preso zeuden Texaseko "heriotzaren korridore" delako horretan. Eta EEBBetako lurralde osoan zenbat pertsona zegoen egoera berean?**
a) 797 pertsona
b) 3.652 pertsona
c) 8.312 pertsona

13. **Zein da munduko urre-ekoizlerik handiena?**
a) Australia
b) EEBB
c) Hegoafrikar Errepublika

14. **Europako herrialde batek erabiltzen duen ener-giaren %75 zentral nuklearretatik dator. Munduko txapelduna horretan, alegia. Zein?**
a) Alemania
b) Frantzia
c) Suedia

ERANTZUNAK

1.a 2.c 3.a 4.a 5.c 6.c 7.b
8.c 9.b 10.z 11.b 12.b 13.b 14.b

ZUZENKETA-ORRIAK


Gaurgero

Frotar	X	Friccionar	X
Rascar	X	Untar	X
Dar	X	Ungir	X
Acariciar	X	Dar friegas	X
Tocar		Rascarse	
Restregar	X	Lamer	X
Sobar	X	Enjugar	X

INTERESGUNEA

Ikasturte	Ikasketa
Jangela	Ikastero
Guraso-elkarte	Ikasle
Testu-liburu	Irakasle
Hezkuntza	Ikasgai
Eskola	Karrera
Ikastetxe	Kurtso

Bidaia



ZUZENKETA-ORRIAK

Elkarrizketa zinea

1. *Chicken Run*
2. *Stuart Little*
3. *Winnie the Pooh*
4. *Wallace eta Gromit*
5. *Tigger*
6. *Chicken Run*

ALDERDI ONAK


- [x] Jende ezagunaren artean lan egiteko parada izatea
- [x] Konfidantza handiagoa edozertarako
- [x] Zeuretzat lan egiten duzu
- [x] Ez duzu langabezia-arazorik
- [x] Denbora librea behar izanez gero, hartzea errazagoa da
- [ ] Erabakiak azkarrago hartzen dira bestelako enpresetan baino

ALDERDI TXARRAK

- [x] Kalean jende askok lana eskatzen dizula
- [x] Ordu gehiago sartu beharra
- [x] Eztabaidak etxetik lanera eta lanetik etxera doaz
- [x] Oporrak hartzeko garaian, ezin ados jarri
- [ ] Aspergarria da beti laneko gaiez hitz egitea
- [ ] Senideen artean haserretzeko aukera handiagoa dago

ipuina

1. etxetik
2. etxekogizon
3. etxeko lanak
4. soziedadean
5. onera
6. eutsi
7. paradisua
8. exenplu
9. iraultza
10. irabaziekin
11. jakinaren
12. leihora
13. artean
14. ohea
15. gorrituz
16. joaterako
17. nonbait
18. Depresioak



DENBORAPASAK

Letra-zopa

borragoma
bizargin
bagoi
lapitz
ardi
hartz
habia
gazta
aingeru
izara
adar
hagin

Hitz gezidunak



			*Deitura Aberiak	H	Harritu Eta	T	... izan, jardun Zabarkeria	A	Izan Antzezle	U
				M	A	T	X	U	R	A	K
			Nabigazioa Erresuma Batua	N	A	U	T	I	K	A
				U	K	Zeelanda Berria Galderetan	N	Z	Etna erdian Haitzuloa	T	N
Musika maite du Filipinetako bat	M	*Izena Eragiketa bat	T	Sofiarazten du Ugazaba	S	A	D	I	K	O	Energia-mota
	L	U	Z	O	N	Edari bizi Eguzki-jainkoa	L	I	K	O	R	E
Nahiko Hark niri zerbait esan...	S	A	M	A	R	Komiki Hor zauden hori	T	E	B	E	O
	D	I	T	Seruma Muzin eginez	G	A	Z	U	R	A	50 Musu	L
Aldaxka Ikusi..., zer ikusi?	K	I	M	U	Uranioa Buruan dugu (edo ez)	U	Argi-arrasto ... izan, atsegin izan	I	Z	P	I
M	A	K	U	S	I	Apalak Bat	L	A	U	A	K
Musikaren santa Puska	Z	E	Z	I	L	I	A	Kontsonantea Lehena	L	Oxigenoa Su handi	O
Z	A	T	I	Bokala Ez du aditzen	E	Nahasmen handia Suge handia	K	A	O	S	A
Lanik ez du Zer	L	A	N	G	A	B	E	Urrea Ukatzeko	A	U	Ez txar
Z	E	Koko erdia Fluoroa	K	O	Galdera-partikula Mehea	O	T	E	Tori Bokala	T	O
Arratseko otordua	A	F	A	R	I	A	Zeukan	Z	U	E	N

Hieroglifoa

HAS erre - bi zian
Haserre bizian

Logika-jokoa

MUSIKARIA	TRESNA	KONPOSIZIOA	ADINA
Arkaitz	*Bateria*	*Akabo*	*Hamasei*
Mitxel	*Gitarra*	*Hutsa*	*Hemezortzi*
Paul	*Baxua*	*Ezer ez*	*Hamazazpi*

I kaslearen koadernoa



Idatz:

Irakurrita izango duzu noski Ritxi Lizartzak idatzi duen iritzi-artikulua (9. orrialdean). Ados al zaude bere esanekin? Akaso bestela pentsatzen duzu. Eguzkia hartu eta beltzaran egotea bezalakorik ez dagoela, alegia. Hala bada, idatziozu Ritxiri zure iritzia azalduz, **argitalpenak@habe.org** posta-helbidera.

Egin ezazu zirriborroa, ezertan hasi aurretik!!

Testua idazten hasterako, zirriborroa gainbegiratzeko oharrak:

* Zein parrafo aldatu edo berridatzi behar duzu?
* Zer erantsiko diozu testuari?
* Zer kendu?

Beltzaranen aldarrikapenak

Zure testua berrirakur ezazu, galdera eta ohar hauek gogoan hartuz:

Hainbat osagai

Argi adierazi duzu norentzako idatzi duzun?	**bai**	**erdipurdi**	**ez**
Argi adierazi al duzu nor konbentzitu nahi duzun?	**bai**	**erdipurdi**	**ez**
Argi ageri al da nor den idazlea?	**bai**	**erdipurdi**	**ez**
Argi ageri al da zein den gure iritzia?	**bai**	**erdipurdi**	**ez**
Zure iritzia justifikatzeko nahikoa argudio eman duzu?	**bai**	**erdipurdi**	**ez**
Bestela pentsatzen dutenen iritzirik jaso duzu?	**bai**	**erdipurdi**	**ez**

Testuaren antolaketa dela eta

* **Non ipini duzu zeure iritzia?**

- ☐ Hasieran
- ☐ Bukaeran
- ☐ Behin baino gehiagotan jarri dut
- ☐ Ez da inon ageri

* **Zure iritzia defenditzeko zenbat argudio adierazi dituzu?**

- ☐ Zirriborroa egin aurretik, zerrendatu ditudan guztiak
- ☐ Batzuk
- ☐ Bakarra
- ☐ Bat bera ere ez

* **Argudio-motak:**

- ☐ Aditu baten iritzian oinarritutakoak
- ☐ Datu edo adibide bidez hornitutakoak
- ☐ Zure eskarmentutik eratorritakoak
- ☐ Zure argudioak justifikaziorik gabeko iritzi pertsonalak dira

* **Nola ageri dira argudioak?**

- ☐ Parrafo bakarrean, bata bestearen atzetik
- ☐ Parrafo bakoitzeko argudio bana, adibide eta guzti
- ☐ Argudioak ordenaturik ageri dira
- ☐ Argudioak eta kotraargudioak parrafo berean daude
- ☐ Argudioak eta kotraargudioak parrafo desberdinetan daude

(M:Milian, 1993)

EUSKARA HOBETZEN (2)

Ale honetako ohar eta aholkua:

Zero eta huts

Zenbakiak nahi beste! Baina, har ditzagun bi hauek: zero eta huts. Biak erabiltzen dira, nahiz eta ez diren gauza bera.

Zero eta huts! *Biak erabiltzen dira, baina zero hutsaren adierazgarri den zenbakia dugu; hutsa, gogora dezagun, materia-gabezia dugu, ezer ez dagoen bitartea,* **"la nada", "el vacio"** *gaztelaniaz.*

Adibidez, futbol-partidetan, edo kirolean, oro har, edo telefono-zenbakiak emateko, azterketetan... Sarritan erabiltzen ditugun zenbakiak ditugu: "Bost eta huts", adibidez; "zero bider zero berdin zero", noski; "zero atera du azterketan"; etab.

Beraz, hutsa adierazteko zenbakia genuke zero... Eta gogora dezagun sinonimo direla biak.

Amaitzeko, nola adieraziko genuke golik gabe amaitu duten partidaren emaitza: Hiru modu baditugu, behintzat: "zero eta zero"; gauza bera, "huts eta huts"; edota, hirugarrena, "husna" izango litzateke.

ADISKIDE GAIZTOAK (2)

Atal honetan jaso nahi izan ditugu erdal mailegu izanik, euskaraz beste esanahi bat hartu duten moldeak, bi hizkuntzetan (euskaraz eta gaztelaniaz) bizirik daudenak baina adiera desberdina dutenak.

Ale honetan,

PRONTO EGON / EDUKI

Hitza irakurrita, gaztelaniazko pronto/r·pido hitzaren kidea dela pentsa liteke, hau da, denbora adierazteko balio duela ematen du, baina ez da horrela gertatzen. Ikusi adibideak:

- *Abiatzeko **pronto** al zaude?*
- ***Pronto** daukat agindu nizun lana, gaur jasoko al duzu?*
- *Kostatzen zaizue **pronto** egotea! Berandu gabiltza!*

Pronto egon/eduki egituraren esanahiari tankerarik hartu ez badiozu, hementxe duzu hiztegiak dioena:

**Prest egon, eduki.*

HIZKUNTZ MOLDEAK

Irraileko ale honetan CD-rik ez dugu txertatu baina urriko alean aurkituko dituzu hizkuntz moldeak.

En este número de septiembre no tenemos CD pero en el número de octubre encontrarás las grabaciones que corresponden a esta sección.

IKUSIZ IKASI

Atal honetan EGAko azterketa gainditu duten zenbait idazlanen ereduak bilduko ditugu. Eredu hauek aztertuta, aztertzaileak sumatu dituen gorabeheren berri emango dugu, hobe beharrez egindako zenbait aholku azalduz.

Ale honetako idazlanak ageri ditu zenbait molde makur. Gure asmoa ez da denei buruzko oharrak egitea, baizik eta bakar batera mugatuz, eraginkor izatea. Oraingoan, idazlana itsusitzen duen arazo bati helduko diogu: behin eta berriz erabiltzen ditu idazleak ***mendizaletasuna, goi-mendizaletasuna, behe-mendizaletasuna*** hitzak. Konponbidea: sinonimoak erabiltzea eta soberan daudenean, hitz horiek kentzea.

MENDIZALETASUNA

Mendizaletasunak, hitzak berak dion bezala, mendian ibiltzeko zaletasuna, gogoa, grina, ohitura... adierazten du.

Badirudi azken urte hauetan mendizaletasuna (joera hau) geroz eta gehiago zabaltzen ari dela, edo beste era batera esanda, geroz eta jende gehiagok daukala mendira joateko ohitura.

*Mendizaletasuna (**Eskuartean dugun gaia**) aztertzeko momentuan (**aztertzean**) bi mendizaletasun (~~**mendizaletasun**~~) mota bereiztuko ditut; lehenengoari behe-mendizaletasuna deituko diot eta bigarrenari aldiz goi-mendizaletasuna.*

Behe-mendizaletasuna:

Bada jende asko, eguna pasatzera, pixka bat ibiltzera eta antzeko ekintza lasaiak burutzera mendira joaten dena. Honi nik, behe-mendizaletasun izena eman diot.

Mendira ibilalditxo bat egitera joaten bagara, sarritan ikusiko ditugu eguzki printzen azpian deskantsatzen dauden familiak, hiria utzi eta mendira lasaitasun bila joandako bikoteak e.a.

*Gehienetan behe-mendizaletasun honen (~~**behe-mendizaletasun honen**~~) helburu nagusia lasaitasuna da, hiriko bizimoduaren estresaz pixka bat aldentzea; eta normalean asteburu edo jaiegunetan praktikatzen da hau.*

*Behe-mendizaletasunerako (**Gainera,**)ez da aurreprestakuntza fisikorik behar, mendirako zenbait gauza (bazkaria, toailak, ura) prestatzea besterik ez da behar.*

*Aldiz, mendizaletasun honen (~~**mendizaletasun honen**~~) arazo larriena kutsadura da. Arestian esan dudan bezala jende asko joaten da mendira egun pasa beraien otordu eta guzti; eta hauetako jende askok uzten ditu eguneko zakarrak mendian botata,*

honen ondorioz kutsadura sortzen delarik. Kutsaduraz gain suteak ere sortu izan dira jendearen ajolagabekeriaz.

Goi-mendizaletasuna:

*Goi-mendizaletasun bezala (**Honela**) izendatu ditut Himalaiara, Pirineoetara, Andeetara eta antzeko mendi garai eta arriskutsuetara egindako bidai edo txangoak.*

*Goi-mendizaletasun eta behe-mendizaletasunaren artean desberdintasun ugari daude eta horietako bat diruarena da. Askoz ere garestiagoa da goi-mendizaletasuna (**lehenengoa**) praktikatzea, izan ere, bidaiek eta prestakuntzek ikaragarri garestitzen baitute berau.*

*Beste desberdintasun bat prestakuntzarena da, behe-mendizaletasunean (**bigarrenean**) ez bezala, goi-mendizaletasunean (~~goi mendizaletasunean~~) aurreprestakuntza fisiko eta psikiko gogorrak behar dira, esaterako, Himalaia bezain arriskutsuak diren mendietako gertaerei aurre egin ahal izateko. Honekin lotuta dagoen beste desberdintasun bat arriskuarena da, goi-mendizaleek eskalatzerakoan e.a. etengabe arriskatzen baitute beraien burua.*


*Nire ustez mendizaletasuna (**mendirako grina**) orokorrean oso kirol edo aktibitate polita da, eta edonor bultzatuko nuke bi mendizaletasun hauetakoren bat praktikatzera.*



Heriotza azken bidaia omen da. Beste batzuk ere badaudelako izan behar du azkena, noski. Bizitza bidaia da beraz, mugitzea, lekutzea.

(Koldo Izagirre)

www.euskadi.net/euskara



Euskara zure eskura
L`euskara au bout des doigts
Basque at your fingertips
El euskara al alcance de tu mano

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

HABE

barrene barrenet barrenkale:

langai berriak eta eskaintza berezia

Zazpi ikastunitate, lau bideo--zinta eta audio-zinta berriak!



Salneurrian %50eko beherapena egingo dugu ikasle-taldearentzat eskatzen diren ikas-materialetan.

Eskaerak HABEra zuzendu
Tel. 943 02 26 34 Fax: 943 02 26 01
E-posta. **info@habe.org**